



Ettxerat elkarteak senideen zama ekonomikoari aurre egiten laguntzeko kanpaina abiarazi du. ▶4



Erosketen ordainagiriak modu digitalean gordetzeko aukera egongo da Ticket Barik txartelagaz, Leioan. ▶6

hiruka

Urbe Kostako astekaria



108. zenbakia

2017ko
urriaren 26tik
azaroaren 8ra arte

Erabakitzeroa bidean

Berangon, Erandion, Getxon eta Leioan egingo dituzte herri-galdeketa, datorren azaroaren 5ean. ▶10-11

Getxon galdeketa egitea «salto kualitatibo handia» izango dela nabarmendu du GEDk. ▶10-11

Zelai Nikolas (GED): «Etorkizuna erabakitzeko gaitasuna gure eskuetan izatea dago jokoan». ▶16-17



HERRIZ HERRI SOPELA

Putxera Eguna egingo dute

Azaroaren lehenengo zapatuan izango da indaba-lehiaketa. ▶7

ADI! DATORREN ASTEAN EZ da HIRUKA astekaririk argitaratuko; hurrengoa, **AZAROAREN 9an.**

Getxoko Komiki Azoka azaroaren lehenengo aste-akabuan izango da, hilaren 3tik 5era bitartean, Areetan. ▶14

Hirukira Olgetan, umeei begirako denbora-pasen atala, hilabete akabu denetan legez. ▶22-23

— XIII —

STOCK EUSKADI!

3-4-5 AZAROAK

GURE APP-A JAITSI ETA ARZ GEMIAO JAINI!

MODA DESKONTUAK

LOKETA 3000€

NIKOLA LENEI MAILAKO MARKAK

EROSKETAN PAGOTXA ITZELAK

FOOD TRUCKS ETXEROAK

ESKAINTZARIK ONENAK

11:00ETATIK 21:00ETARA ARTE

ETA ASKOZ GEMIAO!

Logos: Harley, Adidas, Calvin Klein, New Balance, Carrera, Diesel, Hilfiger, Carhartt, etc.

Zahartze «ona» izateko aukera «ugari» daude

Getxo Lagunkoia prozesuan parte hartu duen gehiengoak aitortu du jarduera ugari eskaintzen dituela Udalak.

Bizi-kalitate handia, zahartze-prozesuaren zailtasuna, pertsona nagusien heren bat udalerrian dauden hiru elkartetako partaide izatea eta Udalari eskaera denentzako astia eta baliabideak bermatzea dira Getxo Lagunkoia proiektuaren lehenengo fasearen ondorioetako batzuk. Fase hori udalerraren egoera agerian uzten duen azterketa bat izan da, azken asteotan partaidetza bidez egindako prozesu batetik ateratako ondorioen bidez. Getxo Lagunkoia hiria eraikitzeke proiektu bizia eta zeharkakoa da, nagusientzako hiri atsegina izateko lan egiten duena; ondorioz, adin denetako pertsonentzat ere. Helburu hori agertzen da 2015/2019ko Legealdi Planaren 49 ekintza adierazgarrien artean, eta Uda-



Getxo Lagunkoia onorioak aurkeztu dituzte Imanol Landak eta Elena Coriak. © GETXOKO UDALA

la garatzen dabilen Zahartze Aktiboko estrategiaren barruan. Proiektua joan den otsailean aurkeztu eta martxoan abian ipini zuten, udalerraren gaur egungo egoera zehazten duen azterketa egiteko lehenengo jarduerakaz. Horretarako, pertsona nagusien gaineko datu estatistikoak batzeagaz batera, partaidetzako prozesua martxan ipini

zen: lan-talde batzuk osatu ziren eta inkesta bat egin zen. Ondorioztatutako datuek udalerriko pertsona nagusien lagin zabalak pentsatzen duena eza-gutzea ahalbidetu du. Datu horiekaz, Udalak proiektuaren hurrengo fasea esleitu eta zeharkako moduan jarduerak antolatzen segituko du. ◀

info+: www.hiruka.eus/getxo

Begoña galerietako lanak aurrera doaz, apurka-apurka

Begoñako hego galeriako sarre-
ra berria muntatu dute egunotan, Arriluzeko Itsasoko Gurutze Gorriaren eraikinaren aurreko lorategian. Sarre-
ra berri horrek hego galeriara sartze-
ko erraztasuna emango die teknikariei,
ikertzaileei eta kanpoko bisitariei. Gai-
nera, galeria horren sabai aizunak des-
muntatzeko lanak esleitzeko tramiteak
bideratzen hasi dira, ez baitago egoe-
ra onean. Bestalde, joan den urriaren
16an, galerietako areto nagusia iragaz-
gaizteko lanak hasi zituzten; hori egi-
teko lanek 163.241 euroko aurrekontua
dute. Izan ere, arazo garrantzitsueneta-
ko bat ura eragiten duen higadura da. ◀

Getxon erosketak egiteak saria dakar, azaroaren 12ra arte

Udalerriko 31 dendatan baino gehia-
gotan erosketak egiten dituztenen
artean askotariko sariak banatuko di-
tuzte. Izan ere, saltoki horietan eginda-
ko erosketa bakoitzeko bezeroek txartel
bana jasoko dute, eta horiek hazkatu.
Sariak askotarikoak izango dira, esate-
rako erosketa-baleak, produktuak... ◀

info+: www.getxoerpresa.com

Enaitz Pirata
ipuinen munduan

Sarrera doan da.
Leku mugatuak!

Urriaren 28an, 11:30ean
Villamonte Kultur Etxean
4 eta 7 urte bitarteko umeentzat

ELUSKARAK 365 EGUN

portu zaharra bar

Portu Zaharra Kalea 20
48991 Algorta-Getxo
Tel. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13
ERROMO

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA • 94 491 27 34

Guira izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!

San Nikolas
IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala Demokratikoa
Euskalduna Autonomoa
Plurala Hezkuntza eta kudeaketa ereduak

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo
Tel: 944 305 478 • ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus



Politikaren Basoa

KOLDO
ITURBE MENDILIBAR
EAJren bozeramailea

Neure herriaz harro, beti harro

Beti maite izan dot Getxo, «aho txikitxoaz» Algor-ta. Eta beti entzun behar izan dot Getxo herri «loruri» edo «dormitorio» dalakoa edo dala; eta, horren kontra, ozen eta garbi adierazi izan dot neure kexa beti.

Neure herrian bederatzi jai-batzorde herrikoi dagoz, dantza tradizionaleko bost talde, hamar abesbatza, hamar talde baino gehiago dantza klasikoa irakasten, euskararen inguruko hainbat elkarte, kirol talde pilo bat, jubilatuen elkarteak, emakumeen elkarteak, GKEak, gazteen elkarteak, dendarien elkarteak, gizarte zerbitzuetan adituak diren giza eragileak, etorkinen plataformak, txokoak... guztira 300 elkarte baino gehiago. Errealitate horren aurrean nork esan leike Getxo lokartuta dagoala? Ez doguz ikusten urtean zehar gure espazio ezberdinak ekime-nez josita? Itsututa gagoz? Nork ez dauka lagunen bat, senideren bat elkarte edo ekimen batean parte hartzen dauana?

Getxo bizirik dagoan herri bat da, dinamikoa eta solidarioa. Getxoko Udalak ekimen horreek erraztu egin behar dauz, eta holantxe egiten dau; herriko eragileak egiten daberen aurrean, laguntza eskaini eta babestu egiten dau. Alkarlana izan behar da danon ardura, alkarlana dalako herri bat aurrera eroaten dauana eta bere izakera eta nortasuna markatzen dauzana.

Horregatik ez dot onartzen kritika huts hori; kultur elkartetan eta jai-batzordeetan ibilitakoa naz, hainbat denbora pasatu da eta gaur egun bizirik dagoz elkarte horreek. Getxo bizirik dago.

Getxo herri polita, ederra da, bai; baina daukagun altxorrik preziatuena gure herri ekimena da, hori da geure indarra eta geure ezaugarri nabarmena. Neure herriaz harro sentitzen naz, neure herriaz eta neure aukideez. ◀

Getxo

Laneko osasuna aztertzeke

Genero-ikuspegia oinarri hartuta, enpresetako osasun integralaren gaineko beharrak definituko dituzte.



Hainbat saio egingo dituzte egitasmoaren baitan, abendura bitartean. © GETXOKO UDALA

Emakume ekintzaileen elkarte da EmakumeEkin, eta Getxo aukeratu du bere lehenengo *Wellness Hub* prozesua egiteko. Azaldu dutenez, ekimen aitzindaria da hori, enpresentzako ideia osasungarriak pentsatzeko; datorren abendura artean egingo dute. Horretan, Getxoko Udaleko hainbat erakundek parte hartuko dute, baita udalerriko hainbat enpresa garrantzitsuk ere, eta eremu horretan diharduten zenbait elkartetako kideek ere bai. *Wellness Hub* jarduerak laneko osasuna aztertuko du genero-ikuspegitik, eta hortik irtengo diren ideiak lagungarriak izango dira emakumeek eta gizonek beren lanean duten ongizatea hobetzeko. Ideia horiek, gero, aukera-berdintasunean eragina izatea gura dute. Zuzeneko saioak egongo dira, Areetako Getxo Elkartegian; online bidez ere egin ahal izango da jarraipena. ◀

Tosu landa, berrokupatuta; obrak gelditu dituzte, oraingoz

Barbengoa metro-geltokiaren ondoko landa okupatu dute, berriro, Tosu Betirako plataformako kideek. Joan den hilaren 24an kanporatu zituen bertatik Ertzaintzak; hala ere, hurrengo zapatuan landa «berreskuratu» zuten ehunaka pertsonak, manifestazio jendetsu baten ostean. Erresistentzia-kanpaldia berrabiarazi zuten orduan, eta bertan jarraitzen dute, oraingoz. Astelehenean, urriaren 23an, tentsio-uneak bizi izan ziren inguruan; herri-ortu okupatura hurreratu zen Ertzaintza goizean goiz, Tosu landaren kontrola berrartzeko. Hala ere, bertara sartu barik alde egin zuten. Aparkalekua eraikitzeari ekin behar zioten beharginek ere ez zituzten makinak martxan ipini, «in-



Beste «garaipentxo» bat dela aldarrikatu dute.

guru behar bezala hesitu arte lanean jarriko ez direla», azalduta. Langileak «beti errespetatu» dituzte ekintzaileek, eta manifestatzeko deialdia egin dute, datorren azaroaren 11n, 12:30ean, Telle-txe plazatik abiatuta. ◀

XVIII. Indabada jaialdia egingo dute zapatuan

Datorren zapatuan egingo dute XVIII. Indabada herri-jaialdia Algor-tan, hilaren 28an; aurtengo mezua da «Ondo etorri Indabadara eta kanpora saguzaharrak». Joan den egunean ipini zituzten bazkariko 450 txartelak salmentan; Baster, Hator eta Salem tabernetan. Hilaren 22ra arte egon da horiek alde aurretik erosteko aukera, 8 euroan. Hala ere, hori egin ez dutenek txartelak erosi ahal izango dituzte oraindino. Izan ere, soberakoak salduko dituzte Indabadaren egunean bertan, baina, 10 euroan. Bestalde, antolatzaileek ohartarazi dute aurten ez dutela edalontzirik salduko, «erabil ditzagun etxeko apalean ditugunak! Zabor gehiagorik ez!». ◀

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

GARRKO

1967

50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH Service
Car Service

Getxo



Santi Labeaga, Manu Borrero, Amaia Sinde eta Marga Bravo euskal preso senideak dira.

«Senide izateagatik, gu ere kondenatu gaituzte»

Dispertsio-politika jasaten duten senideek zama ekonomiko «itzela» pairatzen dutela deitoratu dute; arazo hori arintzeko kanpaina bat abiarazi du Etxerat elkarteak.

IKER RINCON MORENO ▶

Euskal preso senideei laguntzeko Etxerat Lagun kanpaina abiarazi du Etxerat elkarteak oraintsu. Horren inguruan eta beste hainbat kontueren gainean berba egiteko batu dira elkarte horretako bertoko zenbait kide.

Etxerat elkarteak Etxerat Lagun kanpaina ipini berri du martxan. Zertan datza kanpaina hori?

Ziklo politiko berrian, euskal gizartearen gehiengo handi batek presorik gabeko gizarte eta benetako bakearen aldeko hautua egiten du, eta bide horretan, ezinbesteko ekarpena egin du EPPK-k barne eztabaida eginez. Guk ere eztabaida horren ondorioak agurtzen ditugu, alegia, espetxeak husteko garaia heldu da. Etxerat elkarteak hausnarketa egin du, gure estatutuek jasotzen duten moduan. Hala, gure senitarteko preso laguntza juridikoaren eta osasun asistentziaren ardura geure bizkar hartuko dugu zuzenki.

Hala gura izanez gero, zelan lagundu ahal zaizue?

Senideok behar dugun laguntza mota askotarikoa da. Laster hiru hamarka-

da beteko dira urrunketa politika krudela pairatzen dugunetik. Nahikoa da salbuespeneko politika hau urte batez sufritzea familia oso bat ezegonkortzeko. «Senideei babesa indartzeko unea da» mezudun kanpaina honen helburua ekonomikoa da gehienbat, gure bizkar gainean daramagun zama ekonomikoa itzela da eta laguntza eskatzen dugu zama hori arintzeko. Proposatzen duguna da bakoitzak ahal duen ekarpen ekonomikoa egin dezala, hilean 5 edo 10 euro... horrek asko lagunduko digu zama arintzeko.

Zein da gaur egun Etxerat elkarteak egiten duen lana?

Euskal preso politikoen senitartekoek eta lagunek jasaten dituzten giza eskubideen urraketez informazioa emateko eta urraketa horiek salatzeko lanean ari da Etxerat elkarteak. Urruntzearen eragina jasaten duten senitartekoei eta lagunei laguntza eta sostengua eskaintzen diegu. Senideok Etxeraten aurkitzen dugun babesa oso garrantzitsua da, elkarteak errazten digu suertatu zaigun egoera gordina gainditzea. Guk ez dugu aukeratzen senideak izatea, baina, ezin da ahaztu gu kondenatu gaituztela euskal preso politikoen senideak eta lagunak izateagatik.

Euskal preso politikoen kolektiboak 311 lagun ditu espetxean. Zer-zelako egoera bizi dute gaur egun?

Espetxean urte gehiagok egoteak ondorio kaltegarriak izan ohi ditu osasun fisikoan eta mentalean, denbora honetan egiaztatu ahal izan denez. Bestalde, guztiz ulertezina eta salagarria da 311 preso politikoetatik bakarrik 2 Euskal Herriko espetxeetan egotea.

«Espainiar eta frantziar estatuetan sakabanatuta dauden 311 euskal preso politikoetatik 18 eskualdekoak dira»

Beste denak Espainian eta Frantzian daude sakabanatuta. Horrez gainera, Brasilen zein Portugalen beste bi lagun daude espetxeratuta.

Horietatik denetatik, zenbat dira Uribe Kosta eskualdekoak?

Uribe kostan 18 preso politiko dira kolektiboan daudenak, horietako bi frantziar Estatuko espetxeetan daude; gainerako 16ak Espainian. Haiengandik dugun distantzia laburrena 290 kilo-

metrokoa da. Beste 16ak, 560 eta 1.045 kilometro artean daude. Zigor bezala inposatutako bidaiak luze hauen gainetik, senideen arteko harremana mantentzen dugu, eta lotura afektiboa eta lagunaren arteko erlazioa ere eusten jarraituko dugu.

Kopuru hori apurka-apurka murriztuz doan bitartean, preso gaixo larrien kopurua gora doa. Zer egin beharko litzateke horren aurrean?

Preso gaixoen errealitatea adibide kezagarriena izan daiteke. Denera, 91 preso dira nolabaiteko gaitza dutenak; horietatik 13k (duela zortzi urte baino bost gehiagok) gaixotasun larriak dituzte. Antzeko baldintzetan beste 8k ez dute nahi beren identitatea jendeak ezagutzea. Aipatu behar dugu denera 19 euskal preso politiko hil direla espetxeetan. Guk legea betetzea baino ez dugu eskatzen kasu hauetan, gure eskubideak zein preso dauden gure senideen eskubideak ez dute kontratarik izan behar.

Presoen dispertsio politikoak ere eraginak ditu senideengan. Orain dela gutxi, gainera, preso berangoztar baten kideak istripua izan zuen...

Astebururo umeak, adineko senideak, lagun asko errepideetara ateratzen gara inposatutako bidaiak egitera eta bidaiak ez dira amaitzen bisita amaitzen denean, etxean bueltan garenean baizik. Astebururo erruleta errusiarra jolastera behartzen gaituzte. Dispertsioaren eraginez 16 senide hil dira errepideetan, eta ehunaka istripu gertatu dira, kalte fisikoak eta materialak tarteko. Guri burura etortzen zaizkigun galderak dira: noiz arte? zergatik? Noren eta zeren mesedetan mantentzen dute mendeku politika hau?

Abenduan preso dispertsioa salatzeko mobilizaziora deitu dute Parisera. Zer egingo da egun horretan? Zer da horren helburua?

Azaroaren 16tik abenduaren 9ra, Frantziako presondegien itzuli bat antolatu dugu Bagoaz, Sare eta Etxerat elkarteek, euskal presoak dauden 20 espetxeetara abiatzeko. Gure asmoa da bertako eragile, hautetsi, prentsa eta hiritarrak interpelatzea, bake prozesua eta preso egoeraren inguruan. Ondoren, abenduaren 9an Bakegileek mobilizatzeko deialdia egin dute Parisen, «Orain presoak» mezupean. Frantziar Estatuko espetxe politika aldatzea du helburu manifestazioak. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu Hego Euskal Herriatik ere inplikatzeko, Frantzian preso askatasunaren alde pausoren bat emanez gero, horrek eragina izango duelako espainiar Estatuan ere. ◀

Erandio



Lehenengo, kaia egingo dute; ostean, betetze-lanak.

Udondo txikiago, Navacel zabalago

Ibaizabalek ubide-zati bat galduko du, Udondoko dartsenan, Bilboko Portu Agintaritzak Navacel enpresa zabal dezan.

Bilboko Portu Agintaritzak Udondoko dartsena beteko du, Erandioko udalerrian. Hala, ondoan dagoen Navacel enpresak 20.000 metro koadro gehiago izango ditu; hasieran, aurreikusita dago leku berri hori tamaina eta pisu handiko piezen biltegi izatea, baina Navacelek bere instalazioak hara luzatzeko aukera ere izango du. Erandioko enpresak metalezko galdaragintza-gai eta ontzi-ekipamendu erraldoiak ekoizten ditu. Horregatik, Ibaizabalen gainean ipiniko diren materialek tona askoko pisuak jasan beharko dituzte. Beteko duten esparrua honakoa da: itsasadarreko errepidearen, Navacel enpresaren eta alboko dikearen artekoa. Modu berean, ontzi txikiak zainduko kai bat eraikitzea ekarriko du egitasmoak. Portu-agin-

taritzak obren kontratua esleitzeko konkurtsoa zabaldu zuen joan den irailean, eta enpresek bariku honetara arte izango dute euren proposamenak aurkezteko. Denera, proiektuak 3,6 milioi bat euroko aurrekontua dauka, BEZa barne. Halere, litekeena da 3.629.807,10 euroko aurrekontu hori baino merkeago ateratzea, enpresen arteko lehiagatik. Proposamenak azaroaren 27an zabalduko dituzte; txosten teknikoak puntuen %40 emango du eta ekonomikoak, gainontzekoa. Irabazleak obrak hasi beharko ditu kontratua sinatu eta hilabetera. Urtebete izango du lanak amaitzeko.

Gastu soziala

Bestalde, Bilboko Portu Agintaritzak «eskulanaren gutxienezko kostua» finkatu du esleipenaren txosten teknikoan, «Bizkaiko lurraldeko Eraikuntzarako Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera». Txostenak kontuan hartu ditu 2016ko soldata-aulak. Ildo beretik, erakundeak ezarri du proiektu denek aurreikusi beharko dutela segurtasun- eta osasun- partida bat: gutxienez 53.828,14 eurokoa. ◀

Quirón ospitalea saldu arren, lanean segituko dute

Erandioko Quirón ospitalearen erakina salgai dago. Izan ere, Sabadell bankuaren higiezin-agentziak, Solviak, salmentara atera ditu finantza-erakundearen hiru jabetza: Erandioko, Donostiako eta Bartzelonako ospitale bana; hirurak alokatuta ditu gaur egun Quirónsalud taldeak, Fresenius enpresa-talde alemaniarraren filialak. Erandioko ospitalearen eta beste bien operazioa urtea amaitu aurretik ixtea espero dute, Solvia higiezin-agentzia valentziarrak zabaldu duenez. Daborduko, Espainiako eta nazioarteko hainbat talderen eskaintzak jaso ditu enpresak. Izan ere, euren ustean, aktiboa ziurra da, Quirón taldeak segituko duelako ospitaleak kudeatzen eta sinatutako alokairuek errentagarritasun interesgarria eskaintzen dutelako. Erandioko ospitaleak 19.000 metro koadro ditu eta 2029 urtera bitarteko alokairua dauka indarrean. ◀

Azaroan zabalduko dute Alzagako liburutegi berria

Datorren hilabeteetan zabalduko dute Alzagako liburutegi berria, Antonio Trueba kalean; Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziak ziurtatu du azaroan egingo dutela inaugurazioa. Hala, liburutegi bueltatuko da hiru hamarkadaz egon zen lekura, Sentinel rock-areto zenaren aurrean. Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeke beharrek eragin zuten liburutegi lekuz aldatzea, hainbat urtean, Jesus Aranburu kalera. Liburutegi berriak 900 metro koadro izango ditu; 270 metro koadro izango dira 90 erabilzailerentzako, ikasgelarako. Lanek 650.000 euroko aurrekontua daukate. Bestalde, eraikin berean Herritarrentzako Arreta Zerbitzua ere izango da. ◀



Itsasertzetik

GUILLERMO MALAINA MARTINEZ
Irakaslea

Bide gorritik itsasadarreko bidegorrira

Bilbo, Erandio, Leioa eta Getxo egun batean lot litzakeen bidegorriaren kontuak tenis partida eskasa baten antza du. Pilota doa pista batetik bestera, hau da, instituzio batetik bestera. Hitz eta pitz jardun zuten gure politikari batzuek uda baino lehen, baina oraino ez da inor mamira joan. Bidegorri hau estrategikoa al da inguru honetako bizi-kalitatea hobetze aldera?

Instituzioek ez dute argi utzi ea estrategikotzat jotzen duten, eta galdera airean dago deserosoa delako. Erokeria izango litzateke proiektu honen balio estrategikoa ukatzea gaur egun, noiz-eta gure gizartean aisialdirako kirola eta garapen iraunkorrerako bizikleta erreferenteak diren. Beraz, bada garaia instituzioek hotsandiko hitzak karpentan gorde eta proiektu honi balio estrategikoa aitortu diezaioten, argiki, aitormen hori baita benetako konpromisoa.

Hamar urte beteko dira Josu Erkorekak, egungo Eusko Jaur-laritzako bozeramaileak, bidaiatxo bat egin zuenetik itsasadarretik txalupaz. 2008ko Hauteskunde Orokorrek deituta, kanpaina egitera etorri zen Erandiora, non Espainiako Gobernuari eskatu baitzion bidegorria egin zezan. Alferrik izan zen!

Aurton Bilboko Portuak itsasadarreko bidea utzi du, beste instituzioek bidegorria egin dezaten. Orain galdera da zelan ordaindu. Bada proposamen bat daukat. Bidegorria egin dadila Bilbao Ría 2000 izeneko erakundeak beste proiektu asko egiten dituen antzera, Bilbon eta Barakaldon; hortaz, Instituzioek (Espainiako Gobernuak barne) diru-ekarpena proportzionalki egin dezatela, euren gaitasun ekonomikoaren arabera. Ez kilometroka. Honela Erandio langile-herriak ere proiektu estrategiko bati etekina aterako dio, behin sikiera. ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

Algorta

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, s. 48930 ERROMO Getxo
94 493 89 53 • www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

Leioa

Erosketak, papera gastatu barik

Ticket Barik txartela dendetako bezeroei eskaintzeko hitzarmena izenpetuko du Udalak eta Metaposta enpresak.

Leioako Behargintzak Metaposta enpresagaz hitzarmena izenpetuko du, udalerriko saltokietako bezeroei Ticket Barik izeneko txartela eskaintzeko asmoz. Horren bidez, erosketetako ordainagiriak modu digitalean gordetzeko aukera izango dute erosleek; behar duten bakoitzean, sakelako telefonoaren, tabletaren edo ordenagailuaren bitartez begiratu ahal izango dute tiktela. Bitartean, merkatariek «aldaketa txiki bat baino ez» dute egin behar izango, zerbitzu hau eskaintzeko. Metapostako arduraduna den Asier Orioren berbetan, «Estatu mailan aitzindaria da» Leioan martxan ipiniko duten proiektua. Zehaztu duenez, «ahalik eta lasterren» abiarazi gura dute; «beranduenez, Gabonetako kanpainara-



Saltokietan eskatu ahal izango dute Ticket Barik txartela bezeroek.

ren berbetan, «Estatu mailan aitzindaria da» Leioan martxan ipiniko duten proiektua. Zehaztu duenez, «ahalik eta lasterren» abiarazi gura dute; «beranduenez, Gabonetako kanpainara-

ko». Orain, egitasmoagaz bat egingo duten denden bila dabilta; gero, Ticket Barik txartela zenbat bezerok izan gura duten ikusi beharko dute. Bestalde, sistema berria «ingurumenera-

ko mesedegarria» dela aipatu du Mari Carmen Urbietak: «saltokietan ez dute paperik edo tintarik gastatuko tiktetaz inprimatzen», azaldu duenez.

Berrikuntzetarako diru-laguntza

Leioako Behargintzak diru-laguntza jasotzeko aukera emango die, 2017an euren dendetan edo ostalaritza-establezimenduetan berrikuntzaren bat egin duten merkatariei. Hala, 200 eta 600 euro artean eskuratu ahal izango dute, bost langile baino gutxiago dauzkaten saltokiek. Denera, 12.000 euro bideratuko ditu Udalak, diru-laguntza honetara. Tresna edo programa informatikoak, altzariak, makineria zein errotuluak aldatu dituzten enpresa txikiek abenduaren 15era arte izango dute eskaera aurkezteko epea, Leioako Behargintzan, udaletxean edo Pinuetako ludotekan dagoen herritarren arreta-bulegoan. ◀

Tigreren errotulua eta oroitarria kendu gura dituzte

Eugenio Gutierrez Salazar Tigre errefuxiatu leioaztarra zena gogorazteko errotulua eta oroitarria Ikea Barri plazatik kentzeko eskatu dio Bizkaiko PPK Udalari; izan ere, popularen berbetan, Bilboko Administrazio Auzitegiko 1. Epaitegiak «bi hilabeteko epea» eman die bertoko agintariei «ETAko kidea zena» oroitzeke elementuak garbitzeko; sententzia plazaratu du epaitegiak. Hala ere, Udalak helegitea aurkeztuko duela jakinarazi du Mari Carmen Urbietak alkateak. «Daborduko Espainiako Gobernuak EAEn daukan ordezkariak eskaera egin zigunean hainbat zalantza sortu zitzaizkigun. Gutierren al-



GAlek hil egin zuen Eugenio Gutierrez.

deko errotulua eta oroitarria jabetza pribatuko guneetan ipinita daude», azaldu du udal-agintariak. Eugenio Gutierrez Salazar Tigre 1984ko otsailaren 25ean hil zuen frankotiratzaile bategi, Idauze-Mendin, Zuberoan. GALEk beregain hartu zuen hilketa. ◀

Txakolibier festaren bosgarren edizioa, Mendibile jauregian

Mendibile Jauregiak eta Leioako Udalak Txakolibier Festaren bosgarren edizioa egingo dute, urriaren 27tik 29ra arte. Ekitaldi publiko, umoretsu eta familiar honek Alemaniako eta Euskal Herriko jakirik gozoenak elkartuko ditu; erakusketa, dastaketa, umeen animazioa, musika herrikoia eta pop-rokceko kontzertuak ere egongo dira. Horrez gainera, Aspanovas, Caritas, Sortarazi, Fath, Loizaga Kultur Elkarte eta Fidiak Proiektua ongintzako elkarrengatzen dirua batzeko karpia bi ipiniko dituzte. Municheko (Alemania) Oktoberfest jai bavariarrean oinarrituta dago Txakolibier. ◀

info+: www.mendibilejauregia.com

Leioandiko ia ehun aparkaleku salgai ipiniko dituzte

Leioandin, altxatutako etxebizitzak baino aparkaleku gehiago egin ziren, «inguruan ibilgailu gutxiago egon zitezen», Mari Carmen Urbietak alkateak adierazi duenez. 2016an, saldu barik zeuden 99 aparkatzeko lekuak erostea erabaki zuen Udalak, «horiekaz espekula zezaten saihesteko». Bada, orain, horiek leioaztarrei saltzeko baldintza-plegua onartu du Udalak; informazioa dagozkion aldiakari ofizialetan argitaratu bezain laster aurkeztu ahal izango da aparkalekua erosteko eskaera. Bitartean, urriaren 31n, martitzenean, partzelak ikusteko bisita egingo dute, 18:00etan. ◀

info+: www.leioa.eu

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

aldai
Tapizteria
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Sopela

Indaba-lehia, azaroa berotzeko

Indaba-usaina barreiatuko da Sopelako kaleetan azaroko lehenengo aste-akabuan. Pepetxini gorazarre egiteko asmoz, Marmiton Kolektiboak zortzigarrenez antolatuko du Putxera Eguna azaroaren 4an, zapatuan.



Urtero, dozenaka gastronomia-zale batzen da Sopelako Putxera Egunean. © SOPELAKO UDALA

Goizeko 09:00etatik 11:00etara bitartean egongo da Putxera Egunean izena emateko aukera; doakoa izango da.

Lapikoan edo putxeran prestatu beharko dituzte parte-hartzaileek indabak, lehiaketa egiten den lekuan bertan, hau da, udaletxearen aurreko plazan. Gainera, indaba gorriak erabili beharko dituzte, edo garbantzu zein txitxirio-itxurako indaba pintoa. Horiei laguntzeko lau osagai beharrezkoak izango dira, gutxienez: txorizoa, odolostea edo buzkantza, urdaia eta saiheskia; gehiago ere erabil daitezke.

Den-denak prest egon beharko du 13:00etan, beranduenez; izan ere, 12:00etatik 13:00etara bitartean aurkeztu ahal izango dira putxerak, sukaldari eta gastronomo ezagunek epai-

tu ditzaten; aurkezpena, zaporea eta puntua ebaluatuko dituzte.

Eguraldi txarra eginez gero, antolatzaileek estalperen bat eskainiko dute lasai bazkaldu ahal izateko. Osteira, mahaiak, aulkiak, platerak eta abarrik parte-hartzaileek eroan beharko dituzte. Sarietarako dagokienez, garaikurra, ikatza eta diru-saria irabaziko dituzte lehenengo hamarrek, eta sopoloztarrentzako sari bereziak egongo dira.

Pepetxinen omenezko Putxera Eguna gastronomia-ekitaldirik jendetsuenetakoa da Sopelan. Iaz, 155 putxera aurkeztu zituzten, sukaldariek euripean kozinatu behar izan zuten arren. Urte horretan, putxerarik onena izan zen Joseba Ramos santurtziarra. Sopoloztar onenaren saria, osteira, Andrés Larrondok irabazi zuen. ◀

Protesta zaratatsuak egiten dabilta, Udalak entzun dezan

Irailaren 24tik gaur artean, hainbat elkarretaratze zaratatsu egin dituzte Sopelako udaletxearen aurrean, «udal-gobernuaren gaitasunik eza» salatzen. Deialdiak Marisa Gadea sopoloztarrik zabaltu ditu, sare sozialen bidez; Gadea Bizkaiko Batzar Nagusietako hautagaia izan zen, 2015eko foru-hauteskundeetan, Ahal Dugu alderdikoa. Egindako mobilizazioetan, dozenaka lagunek salatu dituzte umeentzako parkeen eta espaloien egoera, zenbait kaleren argitasun-eza, ur-ihesak, eta Zipiriñe eta Iberre ikastetxetan ikasgele gehiago behar dituztela batez ere. Domekan ere, elkarretaratzea egingo dute, leku berean, 12:30ean. ◀

Umeen abesbatza sortu dute, Urepelen ekimenez

Oraindino aurkezpen ofizialik egin ez badute ere, umeen abesbatza sortu dute Sopelan, Urepel abesbatzaren ekimenez. Oraingoan, hamar neska-mutilek osatzen dute abesbatza txikia, baina kide gehiago onartzeko asmoa dute. Hala, gura duten 7 eta 14 urte bitarteko umeek gurasoei esan behar diete Urepel abesbatzagaz harremanetan ipintzeko. Astelehenero ordubeteko saioa izango dute, 17:30etik 18:30era, Kurtzio kultur etxean. Gerba Etxebarria Urepel abesbatzaren presidentek beste elkarte batzuek emandako sostengua nabarmendu du; tartean, Lagun Artearena eta Meñakozena. ◀

info+: 635 753 323 / gerva.e@gmail.com

Sopela Business Market, bigarrenenez

Negoio-azoka egingo dute Sopelan, enplegua sortzen laguntzeko. Azaroan izango da, baina daborduko izena eman daiteke, doan.

Sopelako Udalak bigarrenenez antolatuko du Sopela Business Market, datorren azaroaren 9an eta 10ean, Kurtzio kultur etxean. Udalturriek zabaltu dutenez, negozio-merkatu hori «Sopelako eta eskualdeko ekintzaile-proiektuak bultzatzeko topagunea» izango da; bertan izango dira zenbait eragile, instituzio, inbertsore,

ekintzaile, enpresa eta aditu, «sustapen ekonomikoa eta enpleguaren sorrera indartzeko», udal-iturrien arabera. Bigarren edizioan berritasunak izango direla iragarri du Teresa Fernández Enplegu eta Sustapen Ekonomikorako zinegotzi sozialistak: «egun bira zabaltu dugu ekimena», joan den urtarrilean egindako azoka «arrakastatsuan» parte-hartzaileek «denbora gehiago» eskatu zutelako. Modu berean, «protagonismo handiagoa eman diegu Interneteko lan-topaketei». Azoka doakoa izango da, baina aurretik izena eman beharra dago. ◀

info+: Sopolabusinessmarket.eus



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

IRAKURTZEKO ZALETASUNA SUSTATUZ

Euskaraz irakurtzeko eta solasteko aukera bikaina.

URRIAREN 31an, 19:00etan, KURTZION.

Alaine Agirre-ren "BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ, AMA" eleberria (Elkar) izango dugu aipagai.

Animatu eta parte hartu!

ALAINE AGIRRE IDAZLEA BERTAN EGONGO DA



Berango



Prozesuaren aurkezpena urriaren 26an egingo dute, Berangoeta kultur etxean.

Aurrekontuak osatzeko iritzi bila

Berangon erroldatutako 16 urtetik gorako edozeinek proposamenak bidali ahal ditu, azaroaren 8ra arte. Hainbat bide egongo dira.

Bigarren urtez, Berangoko Udalak bizilagunen beharrak eta lehentasunak zeintzuk diren jakin gura ditu 2018ko aurrekontuak osatzeko helburuagaz. Horretarako, Gobernu-taldeak udalerriko auzokideen iritziak bilduko ditu egunotan. Hala, Berangon erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsonak bere

iritzia zein proposamena helarazi ahal izango dio Udalari. Besteak beste, aurrez aurreko arretarako udal-bulegotara joan ahal izango da, bertan dauden formularioak bete eta entregatu. Proposamen horiek posta elektronikoz ere bidali daitezke, formularioa eskaneatuta eta mezu batean atxikita. Udal-webgunean ere formularioa digitala betetzea dago. Gainera, hilaren 25ean eta 26an hiru karpa informatibo jarriko dituzte pilotalekuaren eta osasun-zentroaren inguruan eta Berangoeta kultur etxe-ko sarreran. Prozesuaren nondik norakoan aurkezpena urriaren 26an egingo dute Berangoetan, 19:00etan. ◀

Gorliz

Diabetesaren sendabidearen aldeko lasterketa egingo dute

Urriaren 27tik 28ra bitartean, 1 motako Diabetesaren sendabidearen aldeko 24 hours Non Stop izeneko egitasmoa egingo dute Gorlizko udal-kiroldegiko atletismo pistan. Team One eta DiabetesCero elkarteek antolatu dute ekimena, Gorlizko Udalaren laguntzagaz.

Antolatzaileek azaldu dutenez, diabetesa duten bost kirolariz osatutako lau talde osatuko dituzte egun horietan. Hala, 24 orduan, uneoro lau kirolari egongo dira korrikan aldi berean atletismo pistan. Guztira, 1.184 kilometro egingo dituzte, «Iberiar pe-

nintsula alderik alde zeharkatzearen berdina, Bilbotik Tarifara arte, bideirik luzeenean», antolatzaileek azaldu dutenez. Ekimen horren helburua da gaixotasun horren sendabidea aurkitzeko ikerketetarako dirua lortzea. Horretarako, egun horietan askotariko ekimenak egingo dituzte inguru horretan, esaterako kontzertuak eta azokatxoak. Gainera, KirolDNAk emandako hainbat Test Genetiko zozkatuko dituzte dohaintzak ematen dituzten gizon-emakumeen artean; bestalde dohaintzak egiteko online bideak ere martxan ipini dituzte. ◀

Plentzia

Gabonetako ikuskizunerako pertsonaien bila ari dira

Gabonei lotuta, tradizio handiko antzezlanak egin ohi dute Plentzian. Urtez urte, Mari Domingi eta Olentzero hurreratzen dira Eleiz plazara, udalerriko neska-mutil denen gozamenerako. Plentziako auzokide askok parte hartzen du eginkizun horretan urtero, baina aurten ikuskizunerako hainbat pertsonaia falta zaizkie. Hori dela eta, bertan parte hartzeko deia egin dute. Berbarako, Momotxorro (14 urtetik gora), Mari (16 urtetik gora), soldaduak (6 urtetik gora), sorgin txikiak (edozein adinetakoak), artzainak (edozein adineta-



koak) eta Eguzki eta Ilargi (8 urtetik gorakoak) pertsonaia falta dira. Interesatuek izena eman dezakete. ◀

info+: 946 775 541 / kultura@plentzia.eus

Txipio auzora sartzeko errepidea hobetuko dute

Bizkaiko Foru Aldundiak datozen bi urteetan errepide-sarean egingo dituen lanen berri eman du. Guztira, 24 ekintza egitea aurreikusi dute, tartean, Plentziako Txipio auzora sartzeko BI-2122 errepidearen konponketa. Iragarpen hori albiste pozgarriz hartu du Plentziako Udalak: «aurreko Gobernu-taldeak egindako lana txalotzen dugu, eta legealdi honetan proiektu hau aurrera ateratzeko Foru Aldundiaren eta

Plentziako Udalaren elkarlana sustatuko dugu». Aipatutako lan horiek aurrera eramateko, Foru Aldundiak 600.000 euroko aurrekontua izango du.

Lanok Bidesarea Planaren barruan kokatuta daude, eta horren helburuetako bat da Bizkaiko eskualde den lehikortasuna handitzea, «baita lurraldearen oreka eta lotura ziurtatzea», Imanol Pradales foru diputatuak azaldu duenaren arabera. ◀

Zikoinen habia kenduko dute Andra Mari bideko antenatik

Plentziako Andra Mari bidean da goen telefonia-antenen jabeek azpiegitura horretan dagoen zikoina-habia kenduko dute, dagozkion baimenak bete ostean. Izan ere, bertan bizi ziren zikoinak eta zikoina-kumeak bertatik alde egin dute, udalerrian hainbat hilabete eman ondoren. Gainera, Udalak jakinarazi duenez, datorren urtean enpresa horrek ez du inolako zailtasunik ipiniko antenan zikoinen habia berriro egiteko; «horregatik, zikoinen itzulera gogoz itxarongo dugu». Era berean, SEOBirdlife erakundearen lana eskertu du Udalak, gai horri lotuta emandako aholkulartzagatik eta laguntzagatik. ◀

Euskaraz ikasteko diru-laguntzak emango ditu Udalak

Euskara ikasi gura bai, baina horretarako ikastaroak ordaintzeko behar besteko dirurik ez duen jendea dago inguruotan, baita Plentzian ere. Hori dela eta, baliabide ekonomikoaren arazo hori gainditu guran, euskaltegietan euskaraz ikasten edo trebatzen ari direnentzako diru-laguntzen deialdia zabaldu du Plentziako Udalak, beste urte batez. Hala, laguntza horiek jaso gura duten gizon-emakume denek Udalak eskatzen dituen dokumentuak bete eta entregatu beharko dituzte. Hori dena egiteko epea datorren azaroaren 20an amaituko dela jakinarazi dute arduradunek. ◀

info+: www.plentzia.eus

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egin zaitez hirukalagun!
Urtean 35€ baino ez
Trukean: zozketak, sariak ia astero, astekaria eguazteno...

Uribe Kosta

Errigora: herrilana, zubigintza



Herrilana du aurton goiburu Errigorak, zubigintzan jardungo dute are Errigorago izateko. © ERRIGORA

Urriaren 26tik azaroaren 14ra eskatu ahal izango dira Errigoraren otzarak: Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka ere ematen diona.

Orain dela bost urte zabaldu-tako bidezidorra bide nagusi bihurtu du Errigorak: «Euskal Herria oinarri eta elkar-lana lanabes dituen ekimen herritar-rrak Nafarroa hegoaldea du ardatz eta «euskara ofiziala ez den esparruan» eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren produktuei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararako eta euskaraz». Herritarrez, nekazariz, euskaltzalez, ekoizlez eta

kontsumitzailez osatutako askotariko sareak Nafarroa hegoaldeak propio dituen produktuak Euskal Herriko plazan kokatzea du helburu, «urru-nekoen orde, bertokoak kontsumi ditzagun», eta, bide batez, Nafarroa hegoaldean euskalgintzari bultzada ekonomikoa ematea. Errigoraren ibilaldia elkarlanean eta auzolanean egindakoa izan da, eta, aurton, «herrilan» bihurtu gura dute: «Herrilana ekitea da. Egitea. Eraikitzea. Herrilana zubigintza da (...). Herrilana herria egitea da. Sarea. Lagunartea. Komunitatea. Elkarlanean ikastola bat eraikitzea. Haurreskola bat. Euskaltegi bat. Errigora bera (...).» Herrilana goiburu izango du ikasturte honetan Errigorak, eta zubigintzaren urtea izango

dela jakinarazi du: «Errigorak honaino iristeko igaro behar izan dituen zubi-ena, eta aurrerantzean eraiki beharreko berriena (...). Lurra eta euskara lotu ditugu. Auzolana eta elikadura-burujabetza. Nekazariak eta euskaltzaleak. Ekoizle eta kontsumitzaile arduratsuak». Diotenez, «ametsetatik errealitatera igarotzeko zubiak eraiki eta gurutzatu» dituzte. Horrez gainera, badakite «amets berriek zubi berriak» behar dituztela: Nafarroa hegoaldeko euskaltzaleen artean, egunen batean euskaraz bizitzeko egitasmo berriak martxan jartzeko; ekoizle, kontsumitzaile, kontsumotalde, dendari, jantoki eta abarren artean, egunen batean merkaturatze-bide berriak zabaltzeko; nekazarien eta elaboratzaileen artean, egunen batean ekoizpen-eremu eta ekoizpen-eredu berriak sustatzeko.

Otzarak: beltza eta zuria

Aipatutako horiek helburu eta egiteko, kanpaina bi antolatzen dituzte: udazkenean, «Euskarari Puzka, Zuria eta Beltza», eta, udaberrian, «Eskutik Eskura, Ierro Berdea (ekologikoa) eta Marroia (konbentzionala)». Udagoien honetan, gaur, urriaren 26an hasiko dute saski zuriak edo beltzak eskatzeko kanpaina (otzara bakoitzak, 50 euro); azaroaren 14ra arte egin ahal izango dira eskariak. Otzara beltza, Errigoraren hastapenetatik mantentzen den produktu-sorta da; oster, zuria, berrikuntzaduna. ◀

Onlineko eskariak eta info+: Errigora.eus

Eskariak non egin:

Erandio

- Gau Txori kultur elkartearen.

Getxo

- Ardaska dendan (Algorta).
- Branka tabernan (Itzubaltzeta/Romo).
- Lauaxeta AEK euskaltegian (Algorta).
- San Nikolas ikastolan (Algorta).
- Udal-euskaltegian (Itzubaltzeta/Romo).

Gorliz:

- Jentilbaso AEK euskaltegian.

Leioa:

- Betiko ikastolan.
- Lamia AEK euskaltegian.

Plentzia:

- Jentilbaso AEK euskaltegian.

Sopela:

- Ander Deuna ikastolan.

Barne-mailakoak:

Horien erabiltzaileentzat bakarrik:

- Mastitxu udal-euskaltegia (Leioa), Azebarri elkarte (Algorta), Getxoko Udala, Romo eskola eta Altzaga ikastolan (Erandio).

Onlineko eskariak jasotzeko, aukeran:

Getxo:

- Lauaxeta AEK euskaltegian (Algorta).

Leioa:

- Betiko ikastolan.



Gabon hauetan, hirukakide guztien artean,
ERRIGORAren **LAU SASKI**
ZOZKATUKO DITUGU

Nafarroa hegoaldeko baratza dastatzeko eta euskara bultzatzeko egundoko aukera!

Egin zaitez **HIRUKALAGUN** edo **HIRUKABAZKIDE**, eta zuk ere zozketan parte hartu!

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO:

✉ [e-malez administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus)

☎ **telefonoz** 94 491 13 37

📄 **agerrakaren bidez**

<http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/>



Azaroak 5, eraba



Ehun mila lagunek baino gehiagok parte hartu ahal izango dute Uribe Kostan egingo diren lau herri-galdeketa.

Datorren azaroaren 5ean Bizkaiko eta Gipuzkoako 13 herri batuko dira Gure Esku Dagok (GED) eragindako olatura; tartean Berango, Erandio, Getxo eta Leioa. Hala, udalerrri horietako denetako 160.000 biztanlek parte hartu ahal izango dute egun horretan antolatuko dituzten erabakitzeko eskubidearen aldeko herri-galdeketa. Gaur artean, galdeketa egin duten herrien arteko handiena izango da Getxo, ia 80.000 biztanle. «Zalantzarik gabe, olatu honetan salto kualitatibo garrantzitsua egingo da», iragarri du GEDk.

Azaroaren 5a «demokrazian sakontzeko eta ezberdinen artean egindako ariketa» izango dela azaldu dute deitzaileek. Udalerrri bakoitzak erabakitzearen aldeko galdera bana egingo




Herri-galdeketa parte hartzera deitu zuten joan den hilaren 21ean Getxon. © GED

die 16 urtetik gorako auzokideei; hala, Berangon, Erandion eta Getxon egingo dieten itauna honako hau izango da: «Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske

erabakitzea?». Ostera, Leioan «Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?» itaunari erantzungo diote. Azaroaren 5ean botoa ematera hurreratu ezin izango direnek alde

Botoa emateko baliozko agiriak



Nortasun Agiri Nazionala (NAN/DNI)

Pasaporte

Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA)

Beti ere errolda-ziurtagiriagaz batera.

Gidabaimena

Beti ere errolda-ziurtagiriagaz batera

Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ/NIE)

NAN edo AIZen agertzen den bizilekua lau udalerrietako bat ez bada edo agiria iraungita badago, errolda-ziurtagiria eroan beharko duzu. Errolda-ziurtagiria lortzeko udaletxera jo dezakezu, lanegunetan.

«Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske erabakitzea?»

Botoa emateko aukerak, egunak eta lekuak

Berango

Non botoa eman

Botoa emateko 2 mahai.

09:00-20:00 Frontoiaren aurreko plazatxoan, Sabino Arana kalean.

09:00-20:00 Angxane auzoko plazan.

Boto aurreratua

Urriak 26 eta 27

19:00-21:00 Frontoiaren inguruan.

Erandio

Non botoa eman

Botoa emateko 6 mahai.

09:00-20:00 Altzagako Irailaren 23 plazan.

09:00-20:00 Astrabuduako Josu Murueta plazan.

09:00-20:00 Erandiogoikoko Euskadi plazan.

Boto aurreratua

Azaroaren 4ra arte

· Altzagako Gure Esku Dagoren lokalean (Irailaren 23 plazan). Martitzen, eguazten eta barikuetan: 19:00-21:00. Zapatuetan: 11:00-13:00.

· Astrabuduko Gure Esku Dagoren lokalean (Consulado de Bilbao kalea, 8 zenbakian). Astelehen eta eguenetan: 19:00-21:00. Zapatuetan: 11:00-13:00.

Getxo

Non botoa eman

Botoa emateko 15 mahai.

09:00-20:00 Algortako San Nikolas plazan.

09:00-20:00 Algortako Telletxe plazan, metro sarreraren ondoan.

09:00-20:00 Maidagan kalean, Gofii estratato bidegurutzean.

09:00-20:00 Bidezabal kalean, ambulatioaren ondoan.

09:00-20:00 Ollarretxe eta Salsidu kalean arteko aparkalekuan.

09:00-20:00 Areetan, A. Larrazabal eta Kale nagusiaren arteko loturan.

09:00-20:00 Itzubaltzeta/Romon, Ibaiondo eta Aurrezki Kutxa kaleen artean.

Boto aurreratua


Azaroaren 4ra arte

· Gure Esku Dagoren lokalean (Telletxe 5, galerian). Astelehen-barikuetan: 12:00-14:00 eta 18:30-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00.

· Itzubaltzeta/Romoko elizako arkupeetan. Astelehen-barikuetan: 11:00-13:00 eta 18:30-20:00. Zapatuetan: 11:00-13:00.

· Artaza-Romo BHI, urriak 26-27, eta Julio Caro Baroja BHI eta Fadura GLHBI, urriak 29-31. 11:00-11:30 eta irteera orduetan.

kiaren indarra



aurretik bozkatu ahal izango dute egunotan, herrietako dinamikek jakinarazitako lekuetan eta orduetan. Horrez gainera, Getxoko GEDk e-mail bidez bozkatzeko aukera zabaldu du.

Uribe Kostakoari jarraituz

Joan den maiatzaren 7an herri-galdeketa egin zituzten Barrikan, Gorliz, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen. «Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura duzu?» galderari erantzuteko, sei herri horietako 25.512 herritar izan ziren botoa ematera deituak, eta 5.007 lagunek bozkatu zuten, hau da, %19,62ak. Baiezko botoak 4.807 izan ziren; ezezkoak, 150.

Oraingoan, eskualdeko beste lau herriek erantzungo diete GEDren galderari. Azaroaren 5ean beste 9 herritan

ere egingo dira galdeketa: Andoain, Areatzan, Atxondon, Beizaman, Elantxoben, Galdakaon, Mundakan,

Uribe Kostako sei herriek egin zuten galdeketa maiatzaren 7an; gainerako lauen txanda, azaroaren 5ean

Ibarrangelun eta Otxandion. Hala ere, Getxo izango da orain arte galdeketa egin den herririk handiena. Denera, 13 herrietako boto-emateko kopurua 160.000 izango da. Orain arte, 155.000 pertsonak botoa emateko aukera izan dute, Euskal Herriko 165 herritan.

«Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?»

GURE
ESKU
DAGO

Leioa

Non botoa eman

Botoa emateko 11 mahai.

09:00-20:00 Boulevarden, Iparragirre kaleko erdigunean.

09:00-20:00 Leioako GEDren lokalean, Sabino Arana 65 zenbakian.

09:00-20:00 Lamiakon, Langileria kaleko 114 zenbakian.

09:00-20:00 Pinuetan, Texas tabernaren ondoan.

09:00-20:00 Artatzan, Artaza kalean.

09:00-20:00 Sarrienen, Aldekoane tabernaren ondoan.

09:00-20:00 San Bartolomen, baselizaren ondoan.

Hautetsontzi ibiltaria egongo da kalerik kale, furgoneta batean.

Boto aurreratua

Urriak 26, eguena

11:00-14:00 eta 18:00-20:30 Gure Esku Dagoren lokalean, Sabino Arana 65 zian.

Urriak 28, zapatua

12:00-15:00 Boulevarden eta 18:00-20:30 Sakoneta kiroldegi aurrean.

Azaroak 2, eguena

11:00-14:00 eta 18:00-20:30 Gure Esku Dagoren lokalean.

Hainbat egunetako egitarauak, herriz herri

Berango

Azaroak 5, domeka

09:00 Aurkezpena, txupinazoa eta txalaparta. Ostean, umeentzako tailerrak, trikitilariak, kantu-poteoa eta pintxo-dastaketa.

Getxo

Urriak 26, eguena

19:00 Mahai-ingurua: Pili Kaltzada eta Juan Jose Ibarretxe. Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian.

Urriak 28, zapatua

12:00 Uribe Kostako hautetsien agerraldia, Areetako Bizkaia zubian.

Azaroak 2, eguena

19:00 Mahai-ingurua: Arnaldo Otegi, Iñigo Iturrate eta Jaime Pastor Verdú. Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian.

Azaroak 3, barikua

19:30 Kimetz abesbatzaren kontzertua, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Sarrera 5 euroan.

Azaroak 4, zapatua

19:30 Flash-moba, Algortako San Nikolas plazan. Ostean, elektro-txaranga.

Azaroak 5, domeka

Algorta-Getxo

09:00 Txupinaren jaurtiketa eta mahaien irekiera.

09:30-11:00 Diana txistulariak, auzoz auzo eta bozkagune denetatik, Andra Maritik abiatuta.

10:30 Trikitilariak Algortan, San Nikolas plazatik Aldapa auzora arte.

10:30 Dultzaineroak, kantariak eta dantzariak, Andra Mariko Bentatik hasita, Bidezabalera arte.

11:30 Albokariak, Andra Mariko Bentatik hasita, Bidezabalera arte.

12:00-12:30 Zumba-saioa, San Nikolas plazan.

12:30 Haurrentzako tailerrak, San Nikolas plazan.

12:30-13:30 Txaranga, Aldapatik abiatuta.

12:30-14:00 Txalaparta tailerra, Telletxe plazan.

12:30 Ekitaldi politikoa, San Nikolas plazan.

13:30 Tor magoa, San Nikolas plazan.

13:30-15:30 Taberna ibiltaria, Salem tabernatik abiatuta.

13:30 Musikariak, kantariak eta dantzarien kontzertua, Bidezabalera.

14:00-15:00 Dantza-plaza, San Nikolas plazan.

18:00-20:00 Bertso-jira, Algortan.

18:00-20:30 Urrats erromeria, San Nikolas plazan.

20:30 Eguneko bozketaren emaitzak, San Nikolas plazan.

Itzurbaltzeta-Areeta-Santa Ana

09:00 Txupinaren jaurtiketa eta mahaien irekiera.

09:30-11:00 Diana txistulariak, auzoz auzo eta bozkagune guztietatik, Itzurbaltzeta/Romotik abiatuta.

12:30-13:30 Igel-toka jolasa, Kresaltsun, Santa Ana plazan eta Areetako Adiskidetasuna kalean.

12:00-13:30 Txapela Bat taldea, Xake plazatik hasita.

13:00-14:00 Haurrentzako animazioa, Aurrezki Kutxa kalean.

13:00-15:00 Ortuellako Txistu Punk, Ganeta plazatik abiatuta. Itzurbaltzeta Txistulariak Alaiak, kultur etxetik abiatuta. Triki-poteoa, Santa Ana eta Areetan.

13:00-15:00 Dantzak, auzo denetan.

13:00-15:00 Taloak, Gobelondo kalean.

18:00-20:45 Kontzertuak, Ibaiondoko karpan.

20:30 Galdeketa emaitzak, Itzurbaltzeta/Romoko eta Areetako karpetan.

Leioa

Urriak 28, zapatua

Goizean puzgarriak Boulevarden eta herri-azoka.

11:00 Herri-kirolak, Sakoneta kiroldegian.

13:30 Anton Latxa & Lagunak.

17:30-20:00 Pala eta esku-pilota partidak, Sakoneta kiroldegian. Koikili Lertxundik emango ditu sariak. Txurru izango da aurkezlea.

Azaroak 5, domeka

09:00 GED adierazpenaren irakurketa eta bozka-mahaien irekiera.

12:00 Herriari deia eta txalaparta. Ondoren, bertsolariak.

12:30 Momentura arteko parte-hartzearen emaitzak.

12:45 Ezkaixe dantzari-taldea.

13:30 Txapelak bat kantulagunak eta Udondoko Txikiteroak herria giroten.

17:00 Dantza alardea herriko Txikiak Dantza Taldea eta Gure Ohiturak taldeakaz.

18:00 Dantza-plaza Txistu Taldeagaz eta Haizea Hormaetxeagaz.

19:00 Bidean erromeria.

20:30 Eguneko parte-hartzearen emaitzak.

Erandio

Urriak 27, barikua

Herri-galdeketa itauren aurkezpena, Erandiogoikoko Euskadi plazan.

18:30 Eskulanak.

19:30 Euskal dantzen erakustaldia.

20:00 Auzoen arteko desafioa.

21:00 Txokolata eta txixi-burruntzia banatuko dute.


Azaroak 5, domeka

Egun osoan askotariko jarduerak egongo dira herrian. Egitaraua zehazteko dago.

hirukaganda

Uribe Kostako astekaria

2017ko urriaren 26tik azaroaren 8ra arte



hiruka.eus



Mixel Ducau, Caroline Phillips, Matthieu Haramboure eta Fred Faure musikariek osatzen dute Bidaia taldea.

GETXO

Euskal folka eta munduko musika-doinuak uztertuz

Bidaia taldeak euskal musika tradizio-nala eta munduko musika folklorikoa uztertzen ditu. 1994an, Errobi taldeko kide zen Mixel Ducau eta Caroline Phillips elkarrengaz jotzen hasi ziren: hasieran, euren bien izenean kaleratu zituzten diskoak; gero, 2002an, Bidaia izenagaz ekin zitoten bideari. Hala, zapatuan, urriaren 28an, Andrés Isasi musika-eskolako agerlekura igot-

ko dira Ducau (ahotsa, gitarra, alboa, flautak, banbuzko klarineta) eta Phillips (ahotsa eta zarrabetea), eta euren taldekideak diren Matthieu Haramboure (baxua) eta Fred Faure (perkusioa). Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrerak salmantan daude daborduko, 10 euroan, ohiko lekuetan. 2004tik gaur artean, Bidaia taldeak lau disko ekoitzi ditu: *Hitz*

da azkenekoa; Aitor Sarasua, Xabier Amuriza, Amets Arzalluz eta Daniel Landart bertsolari eta olerkariaren jatorrizko sorkuntzek osatzen dute. Euskal Herriaren eskualdeen erritmoetan eta doinueta miatuz, munduko beste kulturakaz nahastuz (Maghreb, Balkan edo Cajun), bidaia-idea ondo azpimarratzen du lan horrek. ◀

info+: www.bidaia.com

ANTZERKIA

URRIAK 28, ZAPATUA

Utzidazu Getxo kontatzen: Portu Zaharra ipuin-kontaketa

11:00 | Etxetxu (Portu Zaharra) | Getxo

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Euskaraz. Informazioa eta erreserbak: 944 910 800

URRIAK 29, DOMEKA

La gran depresión

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Antzezian berria estreinatuko du Luna Llena taldeak. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

AZAROAK 5, DOMEKA

Nahia eta Neo

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Rosa Martinezegaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

AZOKA

URRIAK 27 ETA 28

Artisau Garagardo Azoka

18:00-00:00 | San Pedro plaza | Gortiz

V. Urri Gastronimikoa. Hamar garagardo-mota ezberdin baino gehiago egongo dira.

AZAROAREN 31TIK 5ERA ARTE

XVI. Komiki Azoka

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Komikien aurkezpena eta salmenta, berbaldiak, proiektzioak, sinatze-txandak eta erakusketak egongo dira. Orduetgia: 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (domekan, 20:00etara arte). Sarrera: 1,50 euro.

BERBALDIAK

URRIAK 26, EGUENA

Uribe Kostako Mintzodromoa

11:00/18:00 | Udaletxeko plaza | Sopela

Ordu biko saio bi egongo dira: bata, goizean; eta bestea, arratsian. Egunean bertan, lehenago hurreratu izena eman daiteke.

Herriarren kontsultan parte hartzeko arrazoiak mahai-ingurua

19:00 | Faduraiko areto nagusia | Getxo

Getxoko Gure Esku Dagok antolatuta. Juan José Ibarretxe lehendakari-ohia eta ekonomialariagaz eta Pili Kaltzada kazetaria eta komunikazio-aholkulariagaz. Sarrera, doan.

URRIAK 31, MARTITZENA

Irakurle Kluba

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama eleberriaz berba

Gortizko Tito Blas Brewing Co garagardo-fabrikara bisita

12:00 | Sagastikoetxe poligonoa | Gortiz

V. Urri Gastronimikoa. Sarrera: urriaren 26ra arte, 7 euro, turismo-bulegoan; egunean bertan, 10 euro. Izen-ematea: turismo@gortiz.net

JARDUNALDIAK

URRIAK 29, DOMEKA

Gortizko XVI. Jardunaldi Mikologikoak

11:30-15:00 | San Pedro plaza | Gortiz

V. Urri Gastronimikoa. Perretxiko-erakusketa, umeentzako lehiaketa, pintxoan dastaketa eta hainbat lehiaketan sari-banaketa egongo da.

JAIAK

URRIAK 28, ZAPATUA

Indabada

Egun osoan | San Nikolas plaza | Getxo

Diana, txotxa, dantza gidatuak, bazkaria, bingo musikatua eta elektro-txaranga egongo dira. Aurten ez dute edalontzirik salduko. Bazkariko txartela 10 euroan eros daiteke, egunean.

KIROLAK

URRIAK 27 ETA 28

Diabetesa osatzearen aldeko 24 orduko lasterketa

19:00 | Atletismo-pista | Gortiz

DiabetesCERO Bizkaia erakundeak eta Team One Diabetes Challenge taldeak antolatuta. Hogei kirolarik txandaka korrika egingo dute, bost taldeetan banatuta, 24 orduz. Diabetesa osatzeko ikerketarako dirua batu gura dute.

URRIAK 29, DOMEKA

Hiru baselizen herri-ibaldia

09:30 | Boulevard | Leioa

Leioako Euskal Kirol Zaleak taldeak antolatuta. Lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago izena eman daiteke. 12:30ean, txixiburduntzia eta opari-zozketa egongo dira.

KONTZERTUAK

URRIAK 27, BARRIKUA

Antonio Lizana

21:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Oriente bere azken lana aurkeztuko du andaluziarrek. Sarrera: 6-12 euro.

Erasoka eta Garraxika

21:00 | Plaza Beltza Kulturunea | Sopela

Sarrera, doan.

Five Discotion

BARRIKA

Liburutegian galdurik, Lur Kortagaz

Lur Korta ipuin-kontalariaren saio bategaz gogoratuko dute Liburutegien Eguna, Barrikan. Hala, bariku honetan, urriaren 27an, *Liburutegian galdurik* ikuskizuma egongo da, 18:00etan, bertoko udal-bibliotekan; sarrera, doan. ◀

ERANDIO

Zaku bete ipuin, Tibalt hartzarentzat

Tibalt hartzaren urtebetetze-eguna da, eta Lur Usabiagak opari berezi bat pres-tatu dio: ipuinen zaku bihurri bat. Emaldia bariku honetan izango da, urriaren 27an, 19:00etan, Erandioigoikoko gizarte-etxean; sarrera, doan. ◀

LEIOA

Ertibil erakusketa, azaroaren 5era arte

Azaroaren 5era arte, Ertibil ikus-arteen erakusketa ibiltariaren lanez gozatzeko aukera egongo da, Kultur Leioa. Astelehenetik domekara zabali egongo da; sartzea, doakoa. Bertan, 15 artistaren lanak ikus daitezke. ◀

egingo du Alaine Agirrek. Euskaraz. Doan.

AZAROAK 2, EGUENA

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa (UKITX)

18:00 | Berango Antzokia | Berango
Jenisjoplin bere azken liburuz berba egingo du Uxue Alberdi idazleak. Euskaraz. Doan.

DANTZA**AZAROAK 3, BARIKUA**

Dantza Plaza
19:00 | San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo
Getxo udalerriko dantza-talde guztiek antolatuta. Parte-hartzea, libre.

ERAKUSKETAK**URRIAREN 27RA ARTE**

Rosa Diazen eta Miren Berastegiren margolanak
Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Sarrera, doan.

URRIAREN 30ETIK AZAROAREN 5ERA ARTE

Perretxikoen argazkiak
Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Plentziako Aste Mikologikoa. Astelehenetik barikura arte. Sarrera, doan.

AZAROAREN 8RA ARTE

Joseba Galarzaren eskulturak
Algortako kultur etxea | Getxo
Astelehenetik zapatara arte. Sarrera, doan.

ABENDUAREN 23RA ARTE

Igarotzeak
Zirri-marra arte-tailerra (Anboto, 2) | Getxo
Mertxe Perizen artelanak. Sarrera, doan.

GASTRONOMIA**AZAROAK 4, ZAPATUA**

VIII. Putxera Eguna
09:00 | Udaletxe plaza | Sopela
Marmiton Kolektiboak antolatuta. Lapikoak 12:00etatik 13:00etara arte aurkez daitezke.

IRTEERAK**URRIAK 28, ZAPATUA**

Irteera mikologikoa, Murgiera
07:30 | Eliz plaza | Gortiz
V. Urri Gastronomikoa. 5 euro ipini beharko dituzte partaideak; autobusean bueltatuko zate. Izen-ematea: turismo@gortiz.net

FIVE DIRECTION

21:30 | San Pedro plaza | Gortiz
V. Urri Gastronomikoa. Sarrera, doan.

URRIAK 28, ZAPATUA

Gaztela eta Leongo Federazioko abesbatzen lehiaketa
19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Getxo
Sarrera, doan.

Huracan Rose, Tiparrakers, Negracalavera eta AK DJa
21:00 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela
Sarrera: 4 euro.

The Timpanos

21:30 | San Pedro plaza | Gortiz
V. Urri Gastronomikoa. Sarrera, doan.

URRIAK 29, DOMEKA

Jurgi Ekiza
19:30 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela
Sarrera, doan.

AZAROAREN 2TIK 4RA ARTE

Getxoko Aste Korala
19:30 | Erredentore eliza (Algorta) | Getxo
Ljubljana-ko (Eslovenia) musika-eskolako abesbatzak, eta Mixed Choir Maska (Letonia) zein Liepāites Girl's Choir taideek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

AZAROAK 4, ZAPATUA

Rum For All, Sully Riot eta Stand For Nothing
20:30 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela
Sarrera: 2,50 euro, aurretik (652 319 075); eta 5 euro, egunean bertan.

ZINEMA**URRIAK 26, EGUENA**

Surfaren gaineko pelikulak
19:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Sopela Kosta Fest jaialdiko film laburren lehiaketan aurkeztutako lanak. Sarrera, doan.

AZAROAK 4 ETA 5

Gru 3
17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Danontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

AZAROAK 4, 5 ETA 6

Detroit
20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Gaztelaniaz. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 4,50 euro (Ikusleen eguna: 3,50 euro).



Bizarra Lepoan euskara-elkarteak antolatuta du saioa, Euskaltzaleen Topagunearen Kultur Errota egitasmoaren barruan.

Enaitz pirataren ipuinak, Algortan

Enaitzek buruan zapi bat lotu zuen, itsasontziko leman ipini zen eta munduari bira ematen hasi. Hilabeteak dira hainbat heritatik oinez, zaldiz eta itsasontziz igaro dela. Lagun asko egin ditu Hego Amerikan, Afrikan eta Asian. Hamar-naka hizkuntza entzun eta hango ipuinak ikasi ditu. ◀

Noiz: Urriak 28, zapatua.

Ordua: 11:30

Norentzat: 4 eta 7 urte arteko umeentzat.

Non: Algortako kultur etxea.

Sarrera: Doan (ume bakoitzeko nagusi bat bakarrik).

**argi
hizki
ak**²⁰¹⁷

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
VI. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Urriaren 27ra arte
Algortako Merkatua (Torrene, 4)

EGITZU!





Egitarau osoa, sinatze-txandak eta gainerako informazioa: www.salondelcomicdegetxo.net/eus

Ekitaldi batzuk

Azaroak 3, barikua

11:30/17:15 Komiki-film laburren emanaldiak.

19:00 Josep Maria Beári eta Gregorio Muro Harrieti omenaldia eta sari-banaketa.

Azaroak 4, zapatua

11:15 Mahai-ingurua: «Tiragileak eta tiratzaileak. Asisko eta ZaldiEroarekin solasaldia». Moderatzailea: Iñigo Astiz. Euskaraz.

18:00 Topaketa, Petter Baggegaz. Moderatzailea: Borja Crespo.

19:00 Topaketa, Gregorio Muro Harrietegaz. Moderatzailea: Jon Spinaro.

19:45 Topaketa, Chris Claremontegaz. Moderatzailea: Koldo Azpitarte

Azaroak 5, domeka

13:00 Topaketa, Claudio Castelliniaz. Moderatzailea: Jorge Iván Argiz.

18:00 Aurkezpena: *Kisses / Besos / Musuak (II)*. Pi Ortizegaz

18:30 Mahai-ingurua: «Comics x Diversidad: Reflexiones y creaciones de jóvenes de Getxo».

Bederatzigarren artea

Azaroaren lehenengo aste-akabuan egingo da Getxoko XVI. Komiki Azoka, Areetako Geltokia plazako karpapean.

Komikia da bederatzigarren artea, eta hori ardatz duen azoka egiten da urtero Getxon. Azaroaren 3tik 5era bitartean izango da Getxoko Komiki Azoka, eta Areetan ipiniko duten karpa

zabalik egongo da 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (domekan, 20:00etan itxiko dute); sarrerak 1,50 euroan daude. Ohi den legez, salmahaiak, komiki-film laburren proiektioak, topaketak, mahai-inguruak, sinatzeak eta

aurkezpenak, eleberrigrafoen irakurleen hitzorduak eta abarrak egongo dira. Antolatzaileek iragarri dutenez, gonbidatu nagusia Chris Claremont gidolari ospetsua izango da, «X-Men modernoaren sortzailea». Horrez gainera, Azokak gorazarre egingo die Josep Maria Beà egile katalanari eta Harriet sortzaile gipuzkoarrari; hori dela eta, euren lan esanguratsuenak batzen di-

tuzten erakusketa bana ipiniko dute. Azokan parte hartuko dutenen artean daude honako hauek ere: Ana Oncina, Ramón Boldú, Quan Zhou, Mauro Entrialgo, Joshemari Larrañaga, Mamen Moreu, Alex Giménez, Encarna Revuelta, Susanna Martín, Dani Fano, Iñaket, Mikel Begoña, Raquel Alzate, Oskar Blanco, Sergio Córdoba eta Rober Garay, besteak beste. ◀

Hitza emanda ▶

Bost

Nahiz eta sarri egin nahi diguten hozka, erabaki nahi dugu kosta ahala kosta. Getxon, esaterako, prest daukagu bozka, gure eguna baita hazilaren bosta!



UNAI MENDIBURU VALOR
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Gospel-jardunaldiak egingo dituzte Plentzian

Aste-akabuan, urriaren 28an eta 29an, I. Musika Jardunaldiak egingo dituzte Plentzian. Barakaldoko Arteta musika-elkartek eta eskolak antolatu ditu jardunaldiak, hiribilduko Turismo Bulegoak lagunduta, besteak beste. Lehenengo ekitaldian, gospela izango dute ardatz.

Gospel estiloa gogoko duten denei begirako jardunaldiak izango dira azaldu dute antolatzaileek: «gospel-musika ezagutu gura dutenentzat eta abesten gozaten duten denentzat prestatutako ekimena izango da». Egun eta erdiko jardunaldiak izango dira, hau da: urriaren 28an, zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era izango da ikastaroa; urriaren 29an, domekan, 10:00etatik 12:00etara batuko dira; ostean, edozeinek parte hartu ahal izango duen jardunaldi irekiak egingo dituzte, 12:00etatik 14:00etara. Jardunaldiak gospeleko hiru adituk gidatuko dituzte: Carla



Carla Jane, gidarietako bat. © CARLA JANE

Jane-k, Erresuma Batuko gospeleko zuzendariak eta abeslariak; Joy Bukirwa-k, Europa osoan bira egiten dabilen Ugandako Safari abesbatzaren zuzendarikideak; eta Ramón Escalé-k, zuzendari, piano-jole, moldatzaile eta musikagile profesionalak.

Gospel-jardunaldion prezioa 50 eurokoa da (aste-akabu osoa), eta oraindino izena eman daiteke. ◀

Izena emateko: 667 788 106 edo asociacionmusicarteta@gmail.com

Txapelketa Nagusiko lehenengo finalaurrekoan lehiatuko da Jone Uria, zapatuan, Bastidan

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan lehiatzeko txartela lortu zuen Jone Uria Albizuri bertsolari algortarrak, Zallako kanporaketan bigarren lotu ostean. Finalaurrekoen hasierako itzuliaren lehenengo saioan kantatu beharko du Uriak, zapatu honetan, urriaren 28an, 17:00etatik aurrera, Bastidako (Araba) udal-kiroldegian; eta lehiakide izango ditu Agin Laburu Rezola, Igor Elortza Aranoa, Jon Martin Etxebeste, Nahikari Gabilondo Mendizabal eta Sustrai Colina Acordarrementeria. ALBEk hitzordu horretara joateko autobusa antolatuko du: 14:30ean irteno da Algortako Telletzeko geltokitik, eta 21:00ak inguruan Bastidatik; 10 euro balio du bidaiak eta izena eman daiteke oraindino. Finalaurreko faseak itzuli bi izango ditu; lehenengo itzuliko beste saioak honako hauek izango dira: Irun (azaroak 1), Maule-Lexarre (azaroak 4) eta Durango (azaroak 12). ◀

Autobusez joateko: 605 704 385

Luna Llena taldeak Astrabuduan estreinatuko du bere azkeneko antzezlan

Luna Llena antzerki-taldeak Arrigo-urriagako Lombo Aretoan estreinatu behar zuen *La gran depresión* bere antzezlan berria, urriaren 5ean. Hala ere, emanaldia bertan behera utzi behar izan zuten, aktoreetako bat lesionatu egin zelako. Hala, zauritutako laguna osatu ostean, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean egingo dute obra horren lehenengo emanaldia, domeka honetan, urriaren 29an. Hitzordua 19:00etan ipini dute, eta sarrerak 2 euroan salduko dituzte. Luna Llena antzerki-taldeak urtero parte hartzen du Besarkada Federazioak antolatzen duen Emakumeak Eszenan zikloan. ◀

Americanah liburuaren gainean berba egingo dute, Barrikako udal-liburutegian

Urriaren 30ean, astelehenean, Chimumanda Ngozi Adichie (Nigeria, 1977) idazlearen *Americanah* (Penguin Random House, 2014) eleberriri buruzko liburu-foruma egingo dute, Barrikako udal-liburutegian; Gertuko Auzokideen Elkarteak antolatuta. Hala, 18:15ean hasiko da saioa; sarrera, doan. Orain dela urte bi kaleratu zuten lan hau Adichiek; pertsonaia nagusi biren eta batik bat Ifemelu narrazioailearen bizitza kontatzen ditu. Nigerian eta AEBetan kokatzen da istorioa. Nigeriarrek «Americanah» esaten diete AEBetan bizi izan ondoren sorterrira itzultzean handiuste direnei. ◀

Nazioartean oihartzuna eta ospea duten abestaldeak egongo dira Getxoko Aste Koralean

Polifonia protagonista izango da, hiru egunean, Getxo udalerrian; izan ere, azaroaren 2tik 4ra arte, Aste Koralean 37. edizioa egingo dute. Oraingoan, nazioarte-mailan oihartzun handia daukaten hiru abesbatzak kantatuko dute, Algortako Erredentore elizan. Hala, eguenean, ahots mistoen Kmorni Zbor KGBL Ljubljana (Eslovenia) abestaldeak eskainiko du saioa. Barikuan, berriz, Mixed Choir Maska (Letonia) abesbatzaren doinuak entzuteko aukera egongo da. Amaitzeko, zapatuan, Liepaites Girl's Choir (Lituania) umeen koralak abestuko du. Emanaldi denak 19:30ean izango dira; sarrera, doan. ◀



Uxue Alberdiren laugarren liburua da *Jenisjoplin*. CONNY BEYREUTHER

Irakurzaleek, zenbait aukera

Alaine Agirregaz eta Uxue Alberdigaz euren azkeneko liburuen gainean berbetan jardutea aukeran izango dute irakurzaleek, Sopelan eta Algortan; ekitaldi biak, doakoak.

Urriaren 31n izango da 2017-2018 ikasturteko irakurle-klubaren lehenengo hitzordua Sopelan, martitzenean. 19:00etan batuko dira Kurtzio kultur etxean, eta gura duten irakurzale denek parte hartu ahal izango dute. Oraingoan, Alaine Agirre Garmendia (Bermeo, 1990) euskal idazlearen *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (Elkar, 2017) eleberria izango dute berbabide; euskaraz irakurtzeko eta hitz egiteko egundoko aukera, antolatzaileen esanetan. Proiektu horregaz Joseba Jaka beka irabazi zuen Agirrek 2016an.

Bestalde, Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak azaroaren 2an, eguenean, egingo du ikasturteko lehenengo saioa: Uxue Alberdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) bertsolaria, itzultzailea eta idazlea Algortako Aldai patronatuan egongo da, *Jenisjoplin* (Susa, 2017) bere azkeneko liburuz berba

Emanaldiak

Urriak 31, martitzena Sopelako Irakurle Kluba

19:00 *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* eleberria berbabide, Alaine Agirre idazleagaz, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera, doan.

Azaroak 2, eguena

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa

19:00 Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* liburuz berba egiteko topaketa, Algortako Aldai patronatuan. Sarrera, doan.

19:30 *Jenisjoplin* liburuaren aurkezpena, Uxue Alberdi idazleagaz.

egiteko; Alberdik argitaratu duen laugarren lana da. Ekitaldia hasi aurretik, 19:00etan, lagun-talde bat elkartzeko da liburuaren inguruan jarduteko, Egizu Getxo Euskaldun taldeko lagunak azaldu dutenez; 19:30ean hurreraturako zaie idazlea aurkezpena egiteko eta sortutako galderei erantzuteko. ◀

Egizuk aldameneko familiagaz bazkaltzeko aukera emango du

Getxo udalerrian, azaroaren 12an, domekan, *Bizilagunak*. *Aldameneko familia* ekimena egingo dute. Hala, jatorriz bertokoak diren familiak eta atzeritik etortitako getxoizarrak batuko dira, mahaiaren inguruan, elkarregaz bazkaltzeko. Getxoko Udalak, Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta Getxoko Etorrinak plataformak antolatu dute ekimenaren bos-

garren edizioa izango da. Ekimenean parte hartuko duten familien etxeetan izango dira bazkariak; bazkaria antolatzen lagunduko duen dinamizatzaile bat egongo da, bertoko familiagaz eta atzeritik heldutako besteagaz batera, topaketa bakoitzean. Bazkaria partekatzeko edo dinamizatzaile izateko aurretik izena ematea beharrezkoa da. ◀

izen-ematea: www.getxo.eus/bizilagunak



Sexualitateen distirak

SAIOA
HERNANDEZ CASTRO
Sexologoa eta psikologoa

Desiraren ibilbidean, haserrea lagun

Desira oso emozio bizia da, etengabe mugitzea eta mugei kasu egin gabe galtzea gustuko duena. Emozio honek erakarriak sentitzeko gaitasuna ematen digu, eta, baita besteak erakartzeko trebezia ere. Desiraren fantasia bukaezina izatea da, eta ezagutu berri duzun pertsona horrekin betiko harreman gozoa eta kitzikagarria izatea. Leher eginda lotara joaten garenean nekerik gabeko jolasaldi beroak sortarazteko gai da, baita telebistako pertsonaiekin grina pizteko gaitasuna ere izaten du.

Desirak, gainontzeko emozioak bezala, ez daude ez gure alde ezta gure kontra ere, gure izatea eta aukeren adierazgarria besterik ez baitira. Pertsona batzuk norbere desirarekin haserretu egiten dira, gutxi edo asko sentitzen dutelakoan, pertsona «ezegokiengatik» erakarriak sentiarazten direnena. Maitatzen ez dakiten pertsonekin edo beraiek maite ez dituzten pertsonekin maitemintzen garenean desirarekin haserretu gaitezke.

Batzuetan desira bortitza eta inposatzailea da, beste emozioekin gertatzen den bezala, emozio, gorputz eta pentsamendu guztien gainetik inposatzen denean. Burua ez galtzeko, desira bere esparrura bueltatzera gonbidatu behar dugu, eta buruari kasu egin.

Garai batzuetan desira guztiz desagertzen da. Nora joaten da desira desirarik ez dugunean? Erakarriak izateko eta erakartzeko genuen gaitasuna galtzen dugu? Beldurrez nonbaiten ezkutatuta ikusezin dago? Edo tristesiaz geldotasunez mugitu ezinik ez gara beraz ohartzen.

Neurozientziak aztertu duenagatik, haserreak desiraren bide bera erabiltzen du; beraz, haserreak desirak topatzeko lagungarriak izan daitezke eta biak eskua emanda ibilaldian ikus daitezke. ◀

«Kataluniari egin diezaiokegun mesederik handiena da azaroaren 5ean botoa ematea»

Erabakitzeko eskubidearen aldeko herri-galdeketa egingo ditu azaroaren 5ean Getxon, Erandion, Leioan eta Berangon Gure Esku Dagok (GED). GEDren bozeramailea den Zelai Nikolas barrikoztarrak udalerrri horietako bizilagunak botoa ematera deitu ditu, «lanaren eta ilusioaren bidez, gaur ezinezkoa dirudiena bihar posible izan daitekeelako».



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Zelan sortu zen Gure Esku Dago?

Modu desberdinean pentsatuta ere, hainbat lagunek elkarregaz lanean hastea beharrezkoa zela ikusten genuelako sortu zen Gure Esku Dago. Horren korapilatsua eta gatazkatsua izanda, erabakitzeko eskubidea oinarri bezala hartzea beharrezkotzat jotzen genuen: desberdintasunak errespetatuz, gai horren inguruan batzen gaituena nabarmendu eta elkarlana beharrezkoa zela sentitzen genuen, elkarren eskutik joateko. Hain zuzen ere, hori zen giza katearen erronka.

GEDren mugarrietako bat izan da giza katea.

Bai. Denon etorkizunerako horren garrantzitsua den erabakitzeko eskubidea defendatzeko, elkarregaz eskutik joateko gai ote ginen frogatu nahi genuen. Hainbeste urtetan banatuta eta haserretuta bizi ostean, posible ote zen ikusi gura genuen. Lortu genuena ikaragarria izan zen! Oso arrakastatsua izan zen giza katea; urrats garrantzitsua eman genuen. Eguna bera ez ezik, urte horretako elkarlana, jarrerak eta ikasi genuen dena ere altxor bat zela iruditu zitzaigun; alferrik galtzen utzi ezin genuen altxorra, alegia. Hurrengo urratsa elkarregaz lanean hastea izan zen: jakingo genuen ala ez, ez genekien; baina, hori bera zen gura genuena.

Erabakitzeko eskubidea aldarrikapen bat izatetik benetako eskubide bat bihurtzeko, bide hori egikaritzeko, herritarrok zer egin behar dugun hausnartzea zen gure helburua. Gure ekarpena egin nahi genuen.

Orduan konturatu ginen oso kultura demokratiko sakona dagoela; gizakiok ditugun oinarrizko eskubideetan, konstituzioetan eta hainbat dokumentu ofizialetan oinarrituta dago. Horiek erabiliz, guk ere ekarpen bat egiteko aukera geneukala konturatu ginen; eta, horrela, herritarrok ibilbide propio hori antolatzen hasi ginen.

“**Erabakitzeko eskubideak denok berdintzen gaitu; guztiok daukagu bozkatzeko aukera: alde edo kontra**”

Zer balio dute erabakitzeko eskubidearen aldeko herri-galdeketek?

Besteak beste, Barrikan, Gorrizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen egin genituen herri-galdeketa, maiatzaren 7an. Lehen aipatu dudan ibilbide horretan, ondorioa atera genuen: herritarrok badaukagu zer egin erabakitzeko eskubidea gauzatzeko bide honetan. Hiru lan-esparru daude: lehenengoa, pedagogia egitea, euskal herritarrei erabakitzeko eskubidea ematen dien filosofia demokratiko sakon hori zabaltzea; bigarrena, erabaki nahi baldin badugu, aurretik galdera eta data adostu beharko di-

tugu. Eta hirugarrena, erabakitzen ikasi behar dugu; izan ere, erabakitzea kultura, mentalitate eta jarrera oso bat da. Hiru ardatz horiek lantzeko aukera oso polita ematen digute herri-galdeketek.

Zer ikasi zenuten Katalunian?

Kataluniara joan ginen eta, bertan, eztabaidak zeukan aberastasuna ikusi genuen; izan ere, galdeketa bat lurralde-esparru batera errotan duzunean, eztabaida bat sortzen da normaltasun osoz. Ordura arte lokaztuta zegoen gai baten inguruan, normal hitz egiten hasten da: independentzia, burujabetza, erabakitzeko eskubidea zer diren... Horrez gainera, norberaren jarrera demokratikoetan eta kultura demokratikoan sakontzen da; besteak beste, zuk bezala pentsatzen ez duen jendeagaz lan egiten ikasten duzulako. Eta hori gutxi balitz, erabakitzeak zer zailtasun daukan ikusten duzu; izan ere, prozesu oso bat da, eta prozesu horretan denok irabazle izan behar dugu. Beraz, horretan, denok uzten dugu gure «moxila» albo batean. Jakina! Denok gura dugu erabakitzeko eskubidea erabili gure helburua lortzeko; baina, gai izaten ari gara norberaren lehentasunak albo batean uzten apur batez, eta gizarte osoarentzat onuragarria den bide bat egiten.

Galdera hautatzen denean argi eta garbi ikus daiteke hori dena. Herri batetik bestera galdera ezberdinak aurkituko ditugu: herri-galdeketa egitea proposatu duen talde anitz eta zabal horretako norbanakoak dauzkan helburu propioak albo batean



utzi dituelako gertatzen da hori; bere herriarentzat erakargarriena izan daitekeen galdera proposatzen duelako, alegia. Batzuetan, independentziaren inguruan eztabaidatzen dute, galdera egiteko. Beste batzuetan, oster, independentziaren aukera hori beste une baterako utzi dute; eta gizarte honek zertaz eta zergatik erabaki behar duen eztabaidatu nahi izan dute. Getxon, esaterako, oinarri demokratikoen inguruan antolatu dute eztabaida, pentsatu dutelako euren udalerrian erakargarria izango dela eztabaida maila horretan uztea.

Galdeketa baino, horretara heltzeko egon den prozesua da garrantzitsuena orduan?

Bai. Zalantzarik gabe, horrela da. Herri-galdeketek daukaten gaitasuna da herritar bihurtzen gaituztela; herria ezagutzen dugula. Jakin dakizuenetz, horrelako herri-galdeketek Europako Kontseiluak emandako praktika onetan oinarritutako protokolo bati jarraitzen diote; urrats bakoitzaren zilegitasuna zaindu egiten da. Guk askotan esaten dugu erabakitzea oztopo-lasterketa bat dela: zilegitasun-maila bat lortu behar duzu, hurrengo fasean sartzeko. Beraz, lehendabiziko lana talde sustatzailean sentzibilitate, adin, sexu... ezberdinetako jendea batzea izaten da; hau da, gizarte horretan dauden ikuspegi ezberdinak ordezkatuta egon daitezela. Denon ikuspuntuek presente egon behar dute prozesu osoan; horrela lortzen duzu zuk eroan gura duzun eztabaida gizarte edo komunitate osora heltzea,

inor ahaztu gabe. Hori lortuta, sinadura-bilketa bat egiten da, inork eztabaida monopolizatzen ez dela bermatzeko; ez da batzuen edo besteen interesa, baizik eta denok nahi dugun eztabaida bat. Denoi interesatzen zaigu; horregatik eskatzen da sinadura-kopuru bat. Horiek lortuta pasa zaitezke hurrengo fasera: galdera aukeratzea. Hori egiteko ere oso

“ Gure etorkizuna erabakitzea da une honetan jokoan duguna, eta erabakitze gaitasun hori gure eskuetan izatea ”

ariketa polita egiten da, landu egiten delako zer den erabakitze gaitasuna, zer lor daitekeen, zelako ikuspuntu ezberdinak egon daitezkeen, noraino eraman dezakegun eztabaida une honetan, zer gauzak utz ditzakegun orain hurrengo fase baterako... Hori dena herritarrek egiten dute. Horren ostean, sartuko gara herri-galdeketa antolaketan: herritarren eskubideak, botoa bakoitzarena eta sekretua izango dela, iritzi ezberdinak plazaratzeko aukera egongo dela... bermatu beharrekoak dira fase horretan. Herri-galdeketa batek izan behar dituen berme horiek denak herritarrok ari gara bermatzen.

Katalunian jazotakoak eragin dezake azaroaren 5ean jende gehiago joatea botoa ematera?

Bai, batez ere Kataluniakoa afera demokratikoa delako. Euskal Herrian ere erabaki nahi dugunez, oso hur ikusten dugu bertan egiten dabiltzan ariketa; batzuei gustatuko zaie erabiltzen ari diren formula, eta beste batzuei ez zaie horrenbeste gustatuko. Baina, denok konturatzen ari gara, azkenean, ez dela Kataluniaren afera bakarrik; Euskal Herriarena ere bada, baita Europarena ere. Hain zuzen ere, une honetan jokoan duguna gure etorkizuna erabakitzea da; eta erabakitze gaitasun hori gure eskuetan izatea, nahiz eta jakin beste batzuekin konpartitu beharko dugula. Baina, geuk erabaki nahi dugu geure etorkizuna, eta hori geure esku izan nahi dugu.

Gaur egun, ikusten gabiltza batzuk horren aurka daudela, eta oso ulergaitza egiten da jarrera antide-mokratiko hori; are gehiago, asteotan, Kataluniako autonomiaren etenduragaz eta etengabeko mehatxuakaz. Gu behin eta berriz esaten ari gara erabakitze eskubideak berdintzen gaituela denok; azkenean, denok daukagu botoa emateko aukera: alde edo kontra. Parte hartu gura duenak bermatuta dauzka bere eskubideak; demokrazian, errespetuan, aniztasunean... sakontzen ari gara. Bestalde, eskubide hori bermatu beharko lukeen erakunde batetik, Espainiako Estatutik, mehatxuak baino ez zaizkigu heltzen: besteak beste, kartzela eta eskubideak murriztea. Guk uste dugu Kataluniari eta, oro har, demokraziari lagundu nahi dioten herritarrek egin dezaketek handiena dela azaroaren 5eko herri-galdeketa parte hartzea. Kataluniatik ere horixe bera eskatzen digute.

Eta herri-galdeketa egin ostean, zeintzuk izango dira hurrengo pausoak?

Iaz beste ardatz bat abiarazi genuen: Herritarren Ituna. Hain zuzen ere, erabakitze eskubideari ibilbide ofiziala ipiniko dio horrek; eta sintonia berri bat ekarriko dio Euskal Herriari, elkarregaz lan egiteko. Herri-ituna ez du Gure Esku Dagok egingo; GED eragile bat baino ez da. Beraz, horretarako, konplizitateak josita egon behar dira jada. Ildo berean, ibilbide-orri bat lortu gura dugu, Euskal Herri mailako galdeketa data bat izan dezan, galdera bat izan dezan, edo behintzat data eta galdera adosteko bide bat irudika dezan. Kontuak horrela, nahiko genuke herri-itun hori behetik gora bultzatzea. Urte osoan dinamika bat egingo dugu geure buruari galdetzeko zergatik eta zertarako erabaki nahi dugun; erabakitze behar hori plazaratzeko. Horretarako, ahalduntze-fase bat egongo da; ez gara hutsetik hasiko. Horri begira, mintegi batzuk egingo ditugu bost hiriburuetan; horietan, gai nagusi batzuk ipiniko ditugu eztabaidagai, honetaz pentsatu duten hedabideakaz, adituakaz, gizarte-taldeakaz... Haiek planteatuko digutena da zeintzuk diren beraien arrazoiak esparru horretan erabakitze. Gero, dinamika sozial baten bitartez, herritarrek partekatuko ditugu arrazoiak: azken horretan idatzitako aktak eskualdez eskualde joango dira, herritarrek ere joan daitezkeen eztabaida elikatzen. Gure asmoa da 2.019 arrazoi biltzera heltzea; kopuru hori pentsatu dugu uste dugulako 2018ko hauteskundeak ziklo berri bat zabal daitekeela Euskal Herrian. Gero, herritar bakoitzak aukeratuko du gogoko dituen arrazoiak: hautetsontzietan jasoko ditugu, jai giroan; eta erabakitze daukagun beharra konpartituko dugu. ◀

Fadurak euskal tenisa hartu du menpean

Urbaneja eta Chávez Euskadiko banakako eta binakako tenis-txapelkun absolutuak dira. Biak Fadura kirol-taldeko partaideak dira.

Fadura tenis-klubak erakustaldi bikaina eman zuen Euskadiko Tenis Txapelketa Absolutuan, José María Castellanos aitaren eta semearen omenezkoan. Algortarrek banakako eta binakako emakumezkoen eta gizonezkoen txapelak eroan zituzten, Neguriko Jolaseta klubeko kirol-instalazioetatik. Binakako txapelketa mistoan, ostera, ez ziren nagusitu, eta ohore hori etxeko taldearentzat izan zen.

Banakako emakumezkoen txapelketari dagokionez, Irati Urbaneja estreinatu zen Euskadiko txapelketaren maila absolutuan, eta, halere, 15 urteko gazteak irabazi zuen. Eskarmentu handia batu du Urbanejak urteotan, beheko maila denetako txapelkunorde baita. Nerabeak Naiara Uriarte Fadurako taldekidearen aurka jokatu zuen finala; eta derbian 7-5 eta 6-0 irabazi zion, ezustekoa emanez. Izan ere, Uriarte aurreneko serie-burua zen txapelketan. Urbanejak garaipenaren ostean azaldu zuenez, «txapelketa oso gogorra izan da; apurka-apurka Olga Bienzobas eta Mercedes Arístegui bezalako jokalaririk onak gaitzen joan naiz, finalera heltzeko. Ez nuen uste lehiaketa irabazteko aukera izango

nuenik, baina oso pozik nago eta sentazio oso onak izan ditut». Emaitza sendoa lortu zuen arren, berak ez zuen horrela bizi haize-bolada gogorrek baldintzatutako norgehiagoka: «partida deserosoa izan da haizeagatik; Naia-

Euskadiko txapelketa bakarra geratu zen Jolasetakoentzat: binakako mistoa

ra bolak tiraldi zuzenakaz jokatzen ahalegindu da lehenengo setean eta bueltatzeko oso zailak izan dira. Bigarren setean berak huts gehiago egin ditu eta irabazi ahal izan dut». Euskadiko txapelketa irabazita, Urbanejak daborduko hurrengo erronkei begira dabil. Berak aitortutakoaren arabera, «orain nire helburua da Mutua Madrid Openaren aurretik sariketaren bat irabaztea, Caja Mágican azken fasea jokatu ahal izateko», getxoztarrak gaineratu duenez.

Gizonezkoen banakako lehiaketa, Diego Chávez 21 urteko tenislaria na-



Irati Urbanejak eta Olga Bienzobasek irabazi zuten binakako Euskadiko txapelketa. © ETF

gusitu zen. Hala, Fadurako arteko beste derbi bat bizi izan zen finalean, modalitate horretan ere. Izan ere, Chávezek Mikel López taldekidea gaitzen behar izan zuen bere hirugarren Euskadiko txapelketa, eta bigarrena segidan, irabazteko. Gupida barik, set bitan lortu zuen, 6-3 eta 6-2 emaitzakaz.

Chávezen ustean, «aste izugarria izan da, partida onak jokatu ditut banaka eta binaka». Bere sekretua aurreko partidetan egon zela azaldu zuen Fadurakoak: «oso motibatuta heldu nintzen etxera, bai fisikoki baita psikikoki ere, Argentinatik eta Boliviatik bira luzea egin ostean. Han dena ez zen ondo atera, baina partida denetan esperientzia onak jaso nituen. Esperientzia horiek baliatu eta probatu ditut Euskadiko txapelketan», nabarmendu zuen Chávezek.

Binakakoak eta mistoa

Banakako modalitateetan irabazteaz gainera, Irati Urbaneja eta Diego Chávez binakakoetan ere izan ziren Euskadiko txapelkun.

Emakumezkoetan, Urbanejak bikotea osatu zuen Olga Bienzobas donostiarraz, eta biek Naiara Uriarte eta Maialen Morante Fadurako eta Jo-

lasetako jokalaririk menderatu zituzten finalean, set bitan: 6-0 eta 7-6.

Bestalde, Diego Chávez eta Jagoba Cuesta Fadurako jokalariek garaipena lortu zuten, bigarren urtez, gizonezkoen binakako modalitatean. Bikotea nagusitu zitzaion 6-2 eta 6-4 Mikel López Espainiako binakako gazte-mailako txapelkunari eta Mikel Goirigolzarri. Chávez «oso pozik» agertu zen Cuestagaz zeukan binakako titulua berrestegatik, eta Fadura tenis-klubak txapelketako ia garaipen denak lortu zituelako. Etorkizunari begira, txapelkunak iragarri zuen «atse-den-egun batzuk hartu» ondoren, «Espainiako banakako eta taldekako txapelketa prestatzen» hasiko direla. Gainera, urtea amaitzeko, Nazioarteko Tenis Federazioak (ITF) antolatutako hiru txapelketa profesional jokatu dituztela azaldu zuen.

Euskadiko txapelketa bakarra geratu zen Neguriko Jolaseta tenis-taldearentzat: binakako mistoa. Mercedes Arístegui eta Javier Hurtadok osatutako bikoteak lortu zuen garaipena, finalean Maialen Moranteri eta Eneko González nagusitu. Arístegui eta Hurtadok set bitan erabaki zuten finala, biak 6-4 emaitzagaz. ◀



Jorge Camiña, eskuman, Jairo Velasco eta Luis Flor taldekideak. © ITF

Camiña munduko onena da, taldeka eta banaka

Jorge Camiña tenislari getxoztarrak balentria ederra lortu du. Kirolariak munduko tenislari beteranoen bere bosgarren txapelketa irabazi zuen joan den urriaren 20an, Floridan (AEBetan). Camiñarentzat 70 urtez gorako aurreneko txapelketa izan da. Gainera, aurreko astean Jack Craw-

ford Cup sariketan nagusitu zen, beteranoen taldekako munduko tenis-txapelketan, alegia. Horretarako, Jairo Velasco eta Luis Flor katalanakaz taldea osatu zuen. Hala, garaipen biak ikusita ez da arraroa Nazioarteko Tenis Federazioak (ITF) getxoztarra Rafa Nadalagaz konparatu izana. ◀



Aurten zortzikoteka izango dira norgehiagokak, Euskadiko txapelketa dela-eta.

Goierri sokatira-taldea emakumezko bila dabil

Denboraldi berriko entrenamenduei ekin die Goierri sokatira-klubeko emakumezkoen taldeak. Bost lagun hurreratu ziren aurreko astelehenean, Goierri eskolatar. Sasieskola egin zuen ohiko kide-aren bat gehituko da datozen egunotan, baina halere, goma eta lur gaineko

lehiari erantzuteko gutxienez hamarreko taldea osatu gura dute: «tiralar berrien premia larrian gaude», azaldu dute. Hala, deialdi berezia egin diete sokatiran probatu gura duten 15 urtez gorako emakumezkoen, bertaratze-ko. Astelehenean, martitzenetan eta eguenetan batzen dira, 20:00etan. ◀

Blanca Arriola munduko padel-finalera heldu da

Blanca Arriola Jolaseta kirol-klubeko jokalaria finala jokatu zuen Munduko Padel Txapelketan, 14 urtez azpiko binakako modalitatean. Arriolak bikotea osatu zuen Martina Fassio nafarragaz, urriaren erdialdean Malagan jokatuako lehiaketan. Euskal Herriarrek ez zuten galdu

set bat ere finalera heldu arte. Bertan, Mónica Gómez madrildarrak eta Carmen Goenaga leondarrak osatutako bikotea izan zuten arerio. Arriola eta Fassio gaititu zituzten espainiarrek 4-6 eta 6-7. Arriolak Gonzalo Areitio Jolasetako entrenatzailearen babesa izan zuen munduko txapelketan. ◀

Eder Gomez, txapel bila Budapesteko lehiara

Astrabuduako Kick Boxing Taldeak (AKT) ordezkari bat izango du Munduko Kick Boxing Txapelketan, Hungariako hiriburuan. Kirol-elkarteak zabaldu duenez, Eder Gomezek izango du ardura hori, azaroaren 4a eta 12a bitartean, Budapest. Munduko Txapelketa hasi arte,

Gomez fisikoki eta psikikoki prestatuko dute Joana Suarez Nany Espainiako kick-boxingeko txapeldunak eta AKT-ko beste kide batzuek. Borrokalari astrabuduarra 40 urtez gorako mailan lehiatuko da, Kick Light modalitatean. Lehiatzeaz gainera, Eder Gomez entrenatzailea ere bada. ◀



GETXOKO KOMIKI AZOKA 2017

AZAROAK 3 - 4 - 5
AREETAKO GELTOKIA PLAZA

ORDUTEGIA:

11:00-14:30 / 17:00-21:00

- igandean: 11:00-14:30 / 17:00-20:00 -

SARRERA / ENTRADA: 1,50 €



Aurrekoetxeak egunero praktikatzen du. © STYLING

Aurrekoetxea, European

Europako txapeldunorde da paddle-surfean Alazne Aurrekoetxea; egite gogoangarria berriro ere lortu du sopoloztarrak.

Alazne Aurrekoetxea 21 urteko surflari sopoloztarra da, aurtan ere, Europako SUP Surfingeko edo Paddle Surfeko txapeldunorde berria. Hala, Aurrekoetxeak eutsi zion iaz lortutako postuari, joan den urriaren 15eko finalean. Egun

hartan, Iballa Ruano kanariarrak bere laugarren txapelketa irabazi zuen Kantabriako Somo hondartzan. Aurrekoetxearen ostean, Marina Loayza surflari katalana sailkatu zen.

Txikitik urari errespetu handia izan arren Aurrekoetxea surfean hasi zen 13 urteaz, eta orain dela lau urte probatu zuen Stand Up Paddle kirola, taula handiagaz eta arraunagaz. Sopolan hasi zen olaturik ez zegoenean, batez ere txangoak egiten zituenean. Gerora, ahalegindu zen olatuak hartzen baina hasieran oso gogorra egin

zitzaien, surfagaz alderatuta oso ezberdina zelako. Saiatzearen ondorioz arraunaren teknika menperatu zuen eta konturatu zen benetan surfaren oso antzekoa dela SUP. Garai hartan, 2013an, Peña Txuri surf-eskolakoek animatu zuten Portugalgo Itsas Joko Atlantikoetako SUP probetan parte hartzera, Euskadiko selekzioagaz. Aurrekoetxeak hara jo eta SUP Surfing proba irabazi zuen; gainera, bigarren geratu zen SUP racen. Ordutik aurrera hainbat podium lortu ditu, tartean Europako Txapelketan. ◀

Hiru baselizetara joango dira txangoan, Leioan

Leioako hiru baselizen herri-ibilbidea egingo dute domekan, urriaren 29an. Leioako Euskal Kirol Zaleak elkarteak lotuko ditu San Bartolomeko, Ondizko eta Santimamiko baselizak, martxa horretan. Udalak eta merkatarien elkarteak babestu dute ekimena, txango berezi hori bosgarren urtez egiteko. Txangoa 09:30ean hasiko da, Boulevardetik aterata. Udalerriko hiru ermitak batzeko ibilbideak 15 kilometro ditu. Ohi legez, izen-ematea egun berean egin beharko dute interesdunek, 9:00etatik 9:30era, irteera-puntuari. Amaitu ostean, 12:30ak aldera, txitxi-burruntzi izango da Boulevarden. Gainera, zenbait opari zozkatuko dute. ◀

Erandion, atleta izateko aukera eskaintzen dute

Joan den irailaren 21ean, hasi zen Erandionko atletismo-eskolaren denboraldi berria. Batzar informatibo bi egin zituzten egun hartan: kide berrientzat, bata; eta aurreko denboraldikoentzat, bestea. Hilabete pasatu arren, izen-emateak zabalik segitzen du, klubak ohartarazi duenez. Atletismoa probatu gura dutenek eskolaren webgunean bete dezakete inskripzio-orria. Horretarako, beharrezkoa da 2011n edo lehenago jaiotzea. Aste biko probaldia konpromiso barik egitea proposatu du eskolak. Aurtan, Erandion Atletismo Eskolak 35 urte bete ditu. ◀

izen-ematea: Atletaerandion.com.

Barrika Surf Klasikaren txapelak jantzita...

Amarratz surf-taldeak Barrika Surf Klasikaren 30. edizioa antolatu zuen joan den urriaren 14an. Azken urteotan legez, zendutako bertoko surflariak oroitu zituzten. Denera, 41 lagunek parte hartu zuten lehian, egun ederra eta egundoko olatuek lagunduta.

Emakumezkoen surf-txapela Itziar Cimavillak irabazi zuen; eta txapelketa irekian, Igor Arroita nagusitu zen, lehenengo aldiz. Bestalde, surflari gazterik onena Asís Atxa izan zen. Longboard edo *Olaundi* modalitatean, Joseba Francés *Katxibu* izan zen irabazlea. Aipatzekoa da Ritxi Muñoz

taula bitan puskatu zitzaiola goizean eta, hala, finaletik kanpo geratu zela.

Azkenik, Iñaki Garai *Kakok* lortu zuen txapela, 40 urtetik gorako «aitita-amamen» mailan. Gilen Ibarzabal 12 urteko surflariak bere lehenengo Barrika Surf Klasikan egindako egundoko saioa nabarmendu dute antolatzaileek. Txapelketa amaituta, El Puerto jatetxean egin zuten sari-banaketa, iluntzean. Leku berean izan ziren luncha, *From hell to Barrika* amarroztarren kontzertua eta ekitaldixoa, oroitzeko asmoz joandako lagunak: Tomy Sastre, Aletxu Arana *Mikro*, Julito *Copa Davis* eta Sabas Secilla. ◀

Roberto Tamayo saria, neska leioaztarrentzat

Leioako Emakumeak taldeak irabazi zuen Roberto Tamayo futbol-txapelketa, joan den zapatuan. Leioaztarrek 5-2 hartu zuten mendean San Inazio, benjamin-talde biek Algortako batzokiko jolasgunean jokatutako finalean. Nesken futbol-sariketa hori Algortako Bizkerre futbol-taldeak eta Itxartu kirol-elkarteak antolatzen dute urtero; daborduko, bederatzigarren ediziora heldu da ekimena, ohi legez, Roberto Tamayo zenaren omenez. Aurtengo edizioan, sei taldek parte hartu zuten, multzo bitan banatuta. Hala, A multzoan Bizkerre A, Erandionko Betiko Neskak eta Merced San Ina-

zio lehiatu ziren eta B multzoan, ostera, Bizkerre B, Leioako Emakumeak eta Pauldarrak. Taldekako fasearen emaitzek eragin zuten Leioako Emakumeak eta San Inazio finalean topatzea. Sariketaren hirugarren postua Bizkerre A taldearentzat izan zen. Bestalde, Bizkerrek arrastian bereganatu zuen garaipena, Euskal Ligako derbian. Klubeko talde nagusiak 2-1 irabazi zuen eskualdeko derbia, Boluen, Leioako Emakumeak garaituta. Erandionko Betiko Neskak lehenengo aldiz galtzaile atera zen ligan eta, hala, Bizkerre bigarren da, Tolosaren atzetik, eta erandioztarrak, laugarren. ◀


hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Producciones Serranoren ekimenez,
Gaby Moreno artistaren kontzerturako
3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Azaroaren 5eko kontzerturako sarrera bikoitza lortu gura baduzu,
urriaren 30a (astelehena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure
izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Urriko saria

Pizza erraldoia eta edari bi, 2 lagunentzat



Bostak tabernari esker, sari hori
zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta
bazkide denen artean.
Zozketan parte hartzeko, bidali
urriaren 31 (martitzena) baino
lehenago, zure izen-deiturak eta
harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus
edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono
mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Zerbitzuak

+ Guardiako farmaziak, azaroaren 8ra arte

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716.
Azaroaren 4an, zapatuan, 09:00-14:00.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; urriaren 28an eta 29an, zapatuan eta domekan, eta azaroaren 8an, eguaztenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio

ARRIOLA. Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022.
Azaroaren 1ean, zapatuan, 09:00-22:00.

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu) eta azaroaren 4an eta 5ean, zapatuan eta domekan, 09:00-22:00; urriaren 28an, zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291.
Zapatuetan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200.
Zapatuetan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre, 8 bis. Erandiogoikoa. 944 530 124.
Hilaren 28an eta 29an, 09:00-22:00; azaroaren 4an, 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286.
Azaroaren 1ean (eguaztenez), 09:00-13:30.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570.
Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuetan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; domeketan eta azaroaren 1ean, 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043.
Urriaren 27an, barikuan, 09:00-22:00; azaroaren 5ean, domekan, 09:00-13:30.

ESQUISABEL. Algortako Etorb., 32. ALGORTA. 944 602 529.
Azaroaren 3an, barikuan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328.
Egunero, 09:00-22:00.

GARDE. Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052.
Urriaren 31n, martitzenez, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352.
Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632.
Astegunetan eta zapatuetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu) eta azaroaren 4an, 09:00-22:00.

MOLINA. Adiskidetasuna, 13. AREETA. 944 636 246.
Urriaren 29an, 09:00-22:00.

ABERASTURI. Maidagan, 21. GETXO. 944 300 796.
Azaroaren 5ean, domekan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452.
Astegunetan eta zapatuetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; Urriaren 31n, martitzenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941.
Urriaren 27an, barikuan, eta azaroaren 2an, eguenean, eta 7an, martitzenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuetan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185.
Azaroaren 7an (martitzenez), 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484.
Urriaren 27an eta azaroaren 2an eta 4an, 09:00-22:00.

SÁNCHEZ. Estartetxe kalea, 23. 944 800 802.
Urriaren 29an, domekan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191.
Urriaren 30ean, astelehenez, eta azaroaren 5ean, domekan, 09:00-22:00.

RAMOS. Langileria, 92. LAMIAKO. 944 645 185.
Azaroaren 1ean, eguaztenez, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu) eta urriaren 28an, zapatuan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295.
Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341.
Urriaren 28an, 09:00-13:45.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; azaroaren 6an, astelehenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013.
Azaroaren 3an, barikuan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik zapatuko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; urriaren 26an, eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768.
Astegunetan, 09:00-22:00; azaroaren 1ean, eguaztenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; urriaren 30ean, astelehenez, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; azaroaren 4an, zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507.
Astegunetan (azaroaren 1ean salbu), 09:00-22:00; azaroaren 5ean, domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Zure bila gabiltza!

Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!
Trukean: zozketak, sariak, astekaria eguaztenez...

944 911 337 administrazioa@hiruka.eus



HIRUKIRA OLGETAN

SOLUZIOAK:



© Garbine Ubeda

Itzala

Zure ustez, zer egin behar da mendira gogotsu joateko? Ba, hasteko eta behin, ondo gosaldtu. Bilatu itzal zuzena ondoko mokadu oparo honi.



1



2



3



4



5



6



7

Txori Festa


Zer egiten dute txori hauek denak teiltuan geldirik? Oso galdera ona da, baina, erantzutea hurrengo baterako utziko dugu. Oraingoz, bila egizu parerik ez duen txoria. Hirukote bar ere badago, zeintzuek osatzen dute?



Mezu Kodetua



Zer dio Maripurtzilek? Iruditxo bakoitzaren ordeztu, ipini dagokion letra eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z

CEREBRITO PÉREZ



Jostailuez gain, gure ikastaroak demasak eta tumatxak direlako

jolasean ikasten

Porque además de juguetes, hacemos unos talleres educativos que son la pera limonera


aprende jugando

SARIA

ZUK ZEUK KOMETA BAT ERAIKITZEKO JOLASA ZOZKATUKO DUGU!


Zozketan parte hartu gura baduzu, azaroak 19a baino lehenago, helarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337





Ondo begiratu giltza hauetako bakoitzari. Bakarrak zabal dezake sarraila. Zein da?

Zabaldu kutxa



Labirintoa

Lagundu loroari Bizagorriengana heltzen. Ezker, eskuma, gora, behera edo diagonalean mugitu daitezke; baina, AINGURA, KATALOXA, MAPA edo Txalupa duten laukietatik bakarrik pasatuz.

Abordatzerak!

Hamabi laukitxo hauetatik zazpi irudi handitik hartutako zatiak dira. Gainerakoak, osterak, irudi engainagarriak dira. Aurki itzazu.



1/6

Zerbitu hau produktuen antzekotasun adierazgarria da. 1/6 antzekotasun adierazgarria izan da hiri, hantzena.

LABORAL Kutxa Kudeatzaile Entzuten Gortasun Berritzaile Fondea atxikita dago. 2017ko urriak 14ko 26/2011 Errege Lege Dekretuak aurrakustarria. Fondeo horiek gaur egun berritzaile duen gureaneko zerbitzuak 100.000 euroko itxerarekin berritzaile.

super BAT

SUPER BAT KONTUA

SUPER BAT HAURREN HIRU EZAUGARRIAK:

Begiratu bideo honetan **Save the Children**ekin egin dugun azkena. Idatzi helbide hau zure nabigatzailean eta ondo pasatu.

laborala.la/savethechildren

*Katalogo honetan jasotako guzuzko erabilgarritasunak irakurleak eta zuzendakariak egongo dira. Ez da diruzko edozein erabilgarritasun.

JOSTALARIAK

Ezin hobeto pasatzen dute SUPER BAT Katalogoak eskaintzen dien guztiarekin*

AURREZTATILEAK

SUPER BAT kontuak aurretzen eta gozatzen irakasten die aldi berean, eta, gainera, erabateko malgutasunarekin eta komisiorik gabe.

SOLIDARIOAK

Egoera ahulean dauden haurrei laguntzen diete.

LABORAL kutxa



Mundukatuak

Romain Lauféron Malakoffekoa

«Malakoffeko azoka oso bizia da, kultura artekoa»

Romain Lauféron leioztarra Chatenay-Malabry udalerrian jaio zen. Dena den, Paris ondoko beste herri batean hezi zen, Malakoffen. Informatika-ingeniaritza ikasten ziharduela, azken urtea Ingalaterran ikastea erabaki zuen Lauféronek, Erasmus beka bati esker. Han, «euskaldun bat» ezagutu zuen, eta, hala, «maitasunak» ekarri zuen Uribe Kostara, orain dela 10 urte.

Bikotea lau urtez bizi izan zen eskualdean, Parisera beste lau urterako joan baino lehen. Ostean, «leku biak ondo ezagututa», Euskal Herrian Uribe Kosta hautatu zuten bizilekutzat; halere, lantzean behin, Parisera joaten dira senideei eta lagunei bisita egiteko. Daborduko hiru seme-alaba dituzte. Datorren urtean, bi hilabetez itzuliko dira Parisera, Lauféronen bikotekideak egiten dituen ikerketa-beharrak direla eta. Lauféronek azal-

du duenez, merkatua da Malakoffeko bihotza; astean hirutan betetzen dira kaleak. Gehien maite duena da azokak erakusten duen «kultura artekotasuna». Herria bisitatuz gero, Bam elkarte-liburutegia ezagutu beharra

“ Kaleko artea garrantzitsua da; herriko grafitiak ikusgarriak dira ”

dagoela esan du. Berbaldiak, taillerak eta zenbait kultura-ekimen antolatzen dituzte bertan; adibidez hantxe aurkeztu zuten Angela Davis militante feminista afroamerikar ezagunaren liburu bat. Gainera, «herriko grafitiak ikusgarriak dira», hainbat artista ezagun bizi baita inguruan. Bertoko 71 antzokietako lanez gozatzeko aholkatu

du. Estatuko antzoki-sareko kide da, eta «egundoko lanak eskaini ohi ditu, prezio merkean». Bestalde, Leioan bizidenez, Lauféronek hur dauka «lana eta militantzia»: La Tienda Comprometida elkarteko egoitzan egiten du behar, Zorrotzaurren. Hainbat lagun dira proiektuan, *La Boutique Militante* kolektibo frantsesean inspiratuta. Hala, desobedientzia zibila eta ekintza zuzen ez bortitzak sustatzen dabilta, ildo hori daroaten kolektiboak finantzatzen laguntzeaz gainera, material-salmentaren eta zerbitzugintzaren bidez. Formakuntzari eta aktibisten saretzeari ematen diete garrantzi handiena. Besteak beste, *Desobedecer, pequeño manual* plazaratu dute, Xavier Renou *Les Désobéissants* taldearen fundatzaileak idatzitako eskuliburuaren gaztelaniazko itzulpena. Hala, Tosun ikastaroak eman ditu Lauféronek, KEM-MOCeko kideakaz batera. ◀

NOR DA

Nongoa

Malakoff (Ile-de-France, Frantzia).

Adina

35 urte.

Zertan dihardu

La Tienda Comprometida elkarteko kidea da. Desobedientzia, ekintza zuzen ez bortitza, aktibisten saretea eta borroken konbergentzia bultzatzen dituzte, mugimenduen finantzazioagaz batera.


Ikasketak

Informatika-ingeniarria da.

Noiztik Euskal Herrian

2007an etorri zen, «maitasuna» zela eta.

NONGO DA



Lurraldea

Frantzia.

Azalera

640.679 km².

Ingurunea

Malakoff udalerria.

Biztanleria

30.304 pertsona.

Hizkuntzak

Frantsesa da Errepublikako hizkuntza nagusi eta ofizial bakarra, Konstituzioak ezarrita duenez. Estatuak Europako Hizkuntzen Karta sinatu zuen, baina ez du berretsi. Euskara, bretoiera, korsikera, eta beste «eskualde-hizkuntza» batzuk onartuta daude, baina ez dute lege-gerizarik. Bestalde, Malakoffen immigrazio handia dago; arabiera, italiara, gaztelania eta beste hizkuntza asko entzun daitezke.

Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua